

Galtzaundi



ESKUALDEA: Izaskun auzoko jaiak berpiztuta » Bai Euskarari Ziurtagiria Tolosaldean **KULTURA:**

Txintxarrisfera, alegiarren herri birtuala ezagutuz. » Iraila kulturaz blai Galtzaundiren eskutik

KIROL SAL TSA: Abraham Olano Espainiako itzuliaren diseinatzailearekin berriketan

ELKARRIZKETA: Marga Etxezarreta, Budaren bidetik zoriontasunaren bila

Irailak 12-13
Bonberenea
sutan

GIZAKIARI BEGIRA: Meditazioaren psikologia



berogas

langile elkarte, s.a.l.

Berokuntza, gasa, aire girotua, iturgintza.
Instalazio industrialak eta etxeakoak, eguzki-energia.
Sukaldeko eta bainuko altzariak, etxetresna elektrikoak.
Aluminiozko eta Poliuretanozko leihoak .

Denda: P° San Francisco, 10 – 20400 Tolosa
Tel.: 943 653 307
Tel. / Fax: 943 650 520
E-mail: muebles@berogas.com

Bulegoak: Polg. Usabal, pab. 11A – 20400 Tolosa
Tels.: 943 672 620 / 943 675 977
Fax: 943 675 421
E-mail: berogas@berogas.com

www.berogas.com



POLIURETANOZKO LEIHOAK




Centros Auditivos GAES
ENTZUMEN ZENTROA

GAES
Entzumen Zentroak

Audifonoak, hilean 35,80€-tik hasita

San Frantzisko 23 • Tel. 943 69 84 71 • TOLOSA

R.P.S. Nº 19004 LL.G.



aldama_tapia
aholkularitza

Foruen Etorbidea_7
20400_TOLOSA Gipuzkoa
Tel_943 650 375
Faxa_943 655 206
gtolosa@aldamatapia.com
www.aldamatapia.com

NUTRIZIO AHOLKULARITZA

KOLEGIATU ZIK. SP.



AMAIA ETXETXIA
BIOLOGA

KONDEKO ALDAPA, 5 B - 2ª ESKUBIA. TOLOSA. TEL. 679 934 888

DIETA PERTSONALIZATUAK

OBESITATEA

NUTRIZIO BERREZIKETA

HELDUAK ETA HAURRAK



Argitaratzailea: Galtzaundi Euskara Taldea.

Helbidea: Nafarroa etorbidea,
6-behea,
20400 Tolosa (Gipuzkoa)

Telefona: 943 655 004

Faxa: 943 654 983

e-posta: galtzaundi@galtzaundi.com

Webgunea: www.galtzaundi.com

Koordinazioa: Leire Zubeldia.

Erredakzio taldea: Igotz Alkorta, Felix Aiestaran,
Amaia Goikoetxea Azpeltia.

Kolaboratzaileak: Maialen Zubeldia, Amaia Sagasti, Alexander Padilla, Joseba Antxustegietxarte, Jon Ander Ubeda, Txomin Garmendia, Garbiñe Biurrun, J. Agustín Arrieta, Begoña Aristi, Antton Izagirre, Ibon Artola, Inigo Jimenez, Tolosa Bit, Unai Igartua, Virginia Etxarri, Jone Otxoa-Aizpurua, Artubi elkarte, Amaia Goikoetxea Orbegozo.

Publizitatea: Angela Alamo.

Banatzaileak: Oihana Sanchez,
Juan Carlos Arregi.

Idazkaria: Edurne Mendia.

Maketazioa: Zigor Agirrezabala.

Diseinua: Jon Ander Ubeda eta
Maddi Trutxuelo.

Azala: Galtzaundi

Inprimategia: Antza.

Tirada: 5.000 ale.

Lege gordailua: SS-906/91.

Frankeo Itundua: 37/94.

GALTZAUNDI aldizkaria doan banatzen da Tolosaldeko 23 herri hauekiko denda eta tabernetan: Abaltzisketa, Albiztur, Alegia, Alkiza, Alizo, Amezketza, Anoeta, Balianrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Inura, Leaburu, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa.

Galtzaundik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta intzieren erantzukizunik.



zerbitzua eta lana
euskaraz

IRITZIAREN LEIHOA

- Virginia Etxarri:
Bi eta erdi
- Andoni Egia:
Amaierarik gabeko
gurpil ustel honetatik
atea beharra

4-5 orrialdeak

NORMALIZAZIO ATALA

- Gaztelania-euskara
itzultzailea prestatzen



6. orrialdea

ESKUALDEKO ALBISTEAK

- Izaskun auzoko jaiak
berpiztuta
- Bai Euskarari Ziuertagiria
Tolosaldean

11-15 orrialdeak

Galtzaundi 285

2008ko irailaren 5a

Iritziaren Leihoa: Virginia Etxarri eta Andoni Egia	4-5
Eskualdeko albisteak:	
Izaskun auzoko jaiak berpiztuta	11
Bai Euskarari Ziuertagiria Tolosaldean	18-19
Gizakiari begira: Meditazioaren psikologia	12
Elkarrizketa: Marga Etxezarreta budista	13-16
Kultura: Txintxarrisfera, alegiarren herri birtuala	20-21
Kirol Saltsa: Abraham Olanorekin solasean	22-23

ERREPORTAIA Bonberenea sutan



7-10. orrialdeak

ELKARRIZKETA

“Kide batek Dalai Lamaren hitzaldi batera eramanez ninduen. Han Dalai Lamak esan zuena, bere filosofia, izugarri gustatu zitzaidan. Pedagogia aldetik, ordura arte entzun nuen metodorik onena iruditu zitzaidan. Proba egin nuen: Ikasten hasi nintzen eta zentro bat ireki genuen. Gaur, zentru hori insitutu batean bilakatu da eta bertako zuzendaria naiz. ”

- MARGA
ETXEZARRETA
MOJA BUDISTA

13-16. orrialdea



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren, Gipuzkoako Foru Aldundiako Kultura eta Euskara Sailaren, Kutxa Fundazioaren, Tolosaldeko Udaleraren eta Tolosaldeko hainbat Udalen laguntza jaso du.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundutako argitalpena



BI ETA ERDI

VIRGINIA ETXARRI

Ikaslea

Hogeita hiru gradu dira Donostian zazpi eta erdi-dietarako bost minutu falta direnean...

Irratia martxan da, eskua luzatu eta itzali egin du. Izarak oin artean nahasten zaizkio eta korapilo honetatik askatzen saiatzen da. Aldamenean beroa nabaritu ostean, gorputzari bira eman eta bere ondoan duena begiratzearekin batera, berandu dabilela ohartu da. Baina, ez zaio axola, lepoaren atzealdera ilea erretiratu ondoren, muxu goxo bat eman dio. Besteak, burua itzuli eta adi-adi so egin dio.

- Egun on- xuxurlatu du lehenengoak. Begiak lausoturik ditu besteak.

- Zer da maitea?

Bestea ohetik altxa eta bainugelan aurpegia ur hotzez garbitu du, sukalderrantz zuzendu da. Bertan, lehenik kikara bat hartu du eta gero bestea.

- Kafea?- galdetu dio bigarrenak.

- Bai.

Erlojuan zazpi eta erdiak pasatxo dira eta une batez egoera erreparatzen egon ondoren lehenengoak ahots nekatuaz zera esan dio besteari:

- Sentitzen dut, benetan.

Baina, honek ez du konponbiderik.

Besteak, lehenik koilara bat eta gero bestea atera du apaletik.

- Bi?

- Ez, batekin nahikoa dut.

Besteak onetsi eta lehenik azukrea batentzat eta gero bestearentzat banatu du. Kafea azukrearekin nola nahasten den erne begiratzen du, pentsakor dago. Bitartean, lehenak aurpegian behe- ra dioan malkoa gelditzen dio hatzarekin besteari.

Besteak, kikara hartu eta zurrutada bat ematen dio kafeari. Kikara mahai gai-

nean uzten du eta sukaldereko aterantz hurbiltzen den bitartean zera azaltzen dio bikoteari:

- Zuk duzun gogo ezarekin noski ez duela konponbiderik izango.

- Hilabeteak dira saiatzen ari garela eta nekatuta nago - zurrutada bat ematen dio bere kafeari- zuk ez al duzu sentsazio bera?

Bestea ateko eskulekuan eusten da, hasperen egiten du.

- Benetan nahi izanez gero ez da esperantza galtzen.

- Oker zaude. Nik dagoneko esperantza galdu dut, - erantzuten dio esku erlojuan zortziak laurden gutxi direla antzematen duenean-medikuek esan zigutena eta gero...

- Ados. Badira beste bide batzuk ordea. Abokatuek aukerak ditugula diote.

- Ume bat adoptatzea ez da hain erraza, badakizu.

"Euskal Herriko jaiotza kopurua hogeita hamar bat urtetan erdira jaitsi omen da. Nik ordea, Tolosaldean amatxo eta aitatxo gazte ugari ikusten ditut, agian hau sentsazio pertsonal bat da."

Eskulekua beherantz bultzatu, atea ireki eta hitzik esan gabe sukaldetik alde egin du besteak. Lehenak kafea amaitu eta bi kikarak eta koilarak garbitu ditu. Dagoeneko berandu doa lanera.

Euskal Herriko jaiotza kopurua hogeita hamar bat urtetan erdira jaitsi omen da. Nik ordea, Tolosaldean amatxo eta aitatxo gazte ugari ikusten ditut, agian hau sentsazio pertsonal bat da. Hala ere, umerik izan ez dezaketen bikoteei, esperantza izan dezatela esan nahi diet, galtzen den azken gauza omen da eta. ■



Argia astekariak eskainita, 6 hilabeteko harpidetza

irabazi duten Galtzaundiko bazkideak hauexek dira:
Arantxa Amonarriz (Tolosa)
Garbiñe Olano (Tolosa)



AMAIERARIK GABEKO GURPIL USTEL HONETATIK ATEA BEHARRA

ANDONI EGIA

Tolosaldeko EHNEko koordinatzailea

Bueno bueno, bien bien, berriz zeoze idatzi beharkoizuet ba ez? O ze kristo! Ondo al doa zuen bizie o ze? Fijo denek e nahiko komeri baitzeuela eunerokotasunei aurre itten baiño eunero ondo ta sasoi gaudela esan beharra daukeun gure "eufori" honek eztatzen ala?

Ba hoixe auzoko behiek bost titi, baserritarren arten esaten deun bezela, baino bueno esaten deun bezela bakoitzak be lanak, o ya ke hasi naizen, gustatze etzaiona a la puta rio... bueno esangozue txistoso o txotxolo maila, ya igual pixkat bai naize eufori alu honek uzteiten tarte tiki bat aprobetxatzen ai naiz, baina ia bukau da hasike geroxo jarriko naiz.

Bueno hasteko o seitzeko naizuen bezela, salmenta zuzenai buruz hasiko naiz hizketan, azkenen ustez ta nik e bat ittet (naizta hortik oso urruti eon, momentu hontan bizitzet) emengo baserritarren geroa hortik lotua biharko luke, hauek zihurtatzen baitiu garaien-garaiko, ta gazki erabilie daon hitze kalitatezko produktuk sortzea eta lortzea, ta

badeu garaie hauen alde horren guatxik izaten seittu gabe benetako pausok ematen hastekoa, (ni aurrena naizela), nik ustet badaudela lekuk edo saillek hoi landu leikenak, beti eon izanda gehienbat salmenta zuzena barazkiei lotua, ta eskerrak eutxiozuen bestela onezkeo danai jan ziguen, adibide bat botatzearen eta egoera larriñetakoa ikustezaiona haragi-sektorea edo saille da, prezioak oain dela 25-30 urteko igualak die gehieztet esango ze ni ordun esperot beintzat proiektun eongo nintzela ta enaiz gaurkoa, benetan lotsagarrie baino egie da, ta pentxuk bakarrik azkenengo urte inguruan % 45-50 igo ye. Lengon aitzen nion baserritar bati kg haragi ekoiztea 700 pta kostatzen zitzaioela ta kg haragi 600 pta saltze zula asike eztau oso matematikoa izan beharrik ze getatzen zaion ikusteko, baietz ba eztatla gutxi irabazteula baizik eta galdu itteula.

Ta egoera hoi hola ikusita eta hala behartzen zaittelako, baserriak isten hai dia, jendea inpotenzi izugarrikin, etxita ta mala hosti guzikin behiak saltzen ta okerrera da hau dena aittuta

Euskal Herrin haragia sobran daua emateula, ya ya kaka zarra hemen ekoizten den haragi guziak, kontsumitzaillen %38-40ko beharrik bakarrik betetzeittu oseake me kallo o seittu ittet, nik uste arazo larri baten aurrean garela, ta nola baitte aurre itte ezpaizu hemengo haragi sektorea pikuta jungoala. Famili marabiloso bat billatu beharra dau hemengo haragi salmenta zuzenago itteko horrenbeste tarteko gorrontxategitik pasatu gabe porzierto nik baño hobeto jakingo zue haragie erosteak ze gorakada in dun ez? O ze hoin datuk ematea nai? Ba ezta bat hasi minimoki pentxatzen zenbateko igoera in dizuen ta igoera horrek baserritarrai ze onura ekarri dion o sea batez!!

Ta haragikin bezela beste produktu guzikin, tartetik beste esku askotan pasatze baie, puta asko dau jateko ta aizkenen baserritar eta erosleen harteko aldea askoz handigoa da, beste adibide bat esnearena da. Nei litroa 0,46 patzenaie ta zuei dudan euro 1 inguru kobrau, nola liteke tarte hoi dena eotea? Baiño kontuatze al gea tarteko oin guztintzako

"Lengon aitzen nion baserritar bati kg haragi ekoiztea 700 pta kostatzen zitzaioela ta kg haragi 600 pta saltze zula asike eztau oso matematikoa izan beharrik ze getatzen zaion ikusteko"

zenbat in beharra daukeun? Ez al litzeke hobe bi prezio hoin tarteko duin bat lortu ta salmenta zuzena ittea? O bitako bat gixaxo batzuk gea o ez teu enteatu nai, ta netzako aurrenekoa gea baiño beste matiz batekin, erabat kontrolatuta eta lotuta gaudela da matiz hoi. Kurpil ustel baten gaude sartuta ta hortik ateatzea gea ta zailletoa ittezaiau!

Baiño argi daona getzen gean baserritarren erronkaik handiña hurrengo generazioei baserrie bizik uztea dela, ta hoi hala izateko bukaeraik gabeko kurpil hortatik atea beharra daukeula nola eo ala beste modu batzuk billatu behar ditte laneako!! Kalleko jendeak behar gaittuzuelako eta guk zuen beharra deulako!

Nik uste lortu leikeula! Bestela kitto!

Ala animos eta eufori horri eman gatzako bat! ■

ZETA^S_L

**MUNTAKETA
ELEKTRIKOAK**

Usabal z/g - 23. postakutxa
20400 TOLOSA
Tel.: 943 672 728
Faxa: 943 673 219



GORRI

**Paper manipulaziorako makina eraikuntza
Konponketa eta mantenimenduak**

Apatta industrialdea. Baratzondo D 26. IBARRA
Tel.: 943 671 590. Faxa: 943 673 916

Alaia



kafetegia

Guidari kalea, 10 - TOLOSA
Tel.: 943 652 643


Gaztelania-euskara itzultzailea prest urte beteren buruan

LUCY SOFTWARE ENPRESA ALEMANIARRAK EGINGO DU GAZTELANIA-EUSKARA ITZULTZAILEA

Erredakzio Batzordea

Uztailean aurkeztu zuen Patxi Baztarrrika Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikako Sailburuordeak gaztelania-euskara itzultzaile automatikoaren proiektua egiteko esleipena. Honen aurretik, lan prozesu luzea burutu behar izan dute itzultzailearen proiektua martxan jartzeko. Metodologia zehatz bat jarraitu dute: Lehenik, harremanetan jarri ziren teknologia hori duten hainbat enpresarekin, hain zuzen ere euskara beren teknologian integratzeko interesa erakutsi zuten enpresekin. Bakoitzari bere teknologiaren inguruko txosten teknikoa eta bertan euskara integratzeko bideragarritasuna lantzeko eskatu zien. Entitate hauek egindako lanketa baloratzeko batzorde bat antolatu zen. Ondorioen txosten bat egin ondoren itzultzailea kontratatze HPSk presatatu zuen baldintza teknikoen oinarriak ezarri zituzten. Ho-

Testu orokor ez-espezializatuak itzuliko dituen gaztelania-euskara itzultzaile automatikoa eskuragai egongo da urte beteren buruan. Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politika Sailburuordetzak 395.000 euroko inbertsioa egin du tresna hau sortzeko.



nela, 2008 urtarrilaren 4an, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen itzultzailea kontratatze lehiaketa publikoa.

Lau enpresa aurkeztu ziren lehiaketara. Azkenik, kontratua Lucy Software enpresa alemaniarrari eman zioten kontratuaren esleipena. Kontratuan zehazten denez, enpresa ho-

nek Euskal Herriko hiru enprekin elkarlanean gauzatu beharko du gaztelania-euskara itzultzaile automatikoa: Emergiatech, UZEI eta Gizerbitek enpresekin alegia.

Lucy Software-k itzulpen automatikoaren zerbitzuak ematen ditu. Hizkuntza ezberdinetan egin ditu itzultzaileak.

ITZULTZAILEAREN ERABILERA

Itzultzaile automatikoa, gaztelaniatik euskarara testu orokor ez-espezializatuak itzultzeko prestatuko da. Hiru modutan erabili ahal izango da: Interneten testu laburrak itzultzeko, web guneetako edukiak itzultzeko eta Jaurlaritzako intranetaren bidez, testu luzeagoak itzultzeko.

Lucy Software enpresari 15 hilabeteko epea eman zitzaion uztailean itzultzailea egin dezan. Beraz, urte beteren buruan prest egon beharko du. Proiektu hau ordea ez da hemen amaituko. Baztarririk aipatu zuenez, tresna hau garatzen joango da, euskara-gaztelania, euskara-ingelesa eta beste hainbat bide berri irekiz.

Hizkuntza Politikako sailburuordeak gaztelaniatik euskarara itzuliko duen lehenengo tresna bezala aurkeztu du, baina ezin ahaztu, lehenik ere badagoela zerbitzu hau ematen duen tresna bat martxan, Opentrand hain zuzen ere

antza



Bonberenean sua auspotzen

HILAREN 12 ETA 13AN BONBERENEAN SUTAN JAIALDIA IZANGO DA BONBERENEAN

Leire Zubeldia

Sormenaren suhiltzaileen aurrean izan piromano eta zabaldu sua. Hori da Bonberenea sutan manifestuaren lema. Tolosako gaztetxeko kide Patxi Muñoak “plataforma” bezala definitu du izendapen berria: “Bonberenea sutan, proiektu hau aurrera eramateko behar diren elementuen isla da. Bertan, herri mailan zein Euskal Herri mailan Bonberenea gertutik jarraitzen duen jendea dago”. Horrela, Bonberenea, Sanblaspiko, Tolosako Konpartsa, Mulanbo, Hondarribiako Olearso Kulturgunea, Arrasateko Gaztetxea, Bera, Irun eta Gasteizko

Bonberenea Sutan dago. Paradoxikoa dirudien arren, piromanoek hartu dute suhiltzaileen etxea. Sormenaren garra itzali nahi dutenen aurrean, sua zabaltzen jarraitzeko prest daudela erakutsi nahi dute. Asmo horrekin, Bonbereneako lagun guztiek, (bai Tolosakoak eta bai Euskal Herriko txoko ezberdinetatik etorritakoek), irailaren 12 eta 13an egingo den Bonberenea Sutan jaialdian hartuko dute parte. Bi eguneko festa ez da soilik helburu bat; Bonberenearen proiektuak duen babesa erakusteko aitzakia ere izango da.

lagunak, Gor disketxea, Bide Huts eta hainbat musika taldek eman dute euren babesa. Guztiek parte hartuko dute jaialdian. “Guretzat adierazteko modurik onena, jendeak guk antolatzen ditugun ekimenetan parte hartzea da. Horrek erakusten baitu, jen-

de guzti hau Bonberenea proiektuaren alde eta honen filosofia zabaltzearen alde dagoela. Azken finean, Bonberenearen birkokapena gauza dadin nahi dutela esan nahi du”.

Musika jaialdia egiteko asmoa ez da oraingoa. Azken

urte hauetan buruan izan dute ideia hau. Aspaldiko asmo hori aurrean gauzatzea ez da kasualitatea. “Bonberenearen birkokapenaren negoziazio prozesua martxan dago. Guk, etxe honetatik ateratzeko baldintzak zeintzuk ziren zehaztu genion Udalarari. Bonberenea sutan, jarritako baldintza horiei eta etxearen birkokapenari sustengua ematera dator”. Helmuga horri begira, jaialdia plataforma honen lehen ekinaldia izango da, baina ez azkena.

LAGUN ARTEKO KONTZERTUA

Iraileko bigarren asteburuan euskal panorama musi-

(hurrengo orrian jarraitzen du)

(aurreko orritik dator)

kaleko talderik esanguratsuenak igoko dira Bonbereneako eskenatokira. Karteldegia ikusita edonork pentsa dezake, ahalegin pertsonal eta ekonomiko izugarriak egin beharrean aurkitu direla azken emaitza hori lortu ahal izateko. Ez da horrela izan ordea. "Urte guzti hauetan egin den lanari esker, Bonberenea eta hainbat euskal musika talderen artean harreman estuak sortu dira. Talde hauekin askotan egin dugu lan proiektu ezberdinak aurrera ateratzeko, eta askotan jo dute Bonberenean. Gezurra badirudi ere, *Bonberenea sutan* lagun arteko jaialdi bat izango da", azaldu du Patxik.

Urte hasieran hasi ziren Tolosako gaztetxean jaialdi hau prestatzen. "Garaiz hasi beharra dago lanean. Batetik, horrelako jaialdi baten atzean lan handia dago, eta bestetik, oso zaila da horrenbeste talde asteburu batean biltzea".

irailak 12 ostirala Bonberenea futbol zelaia arratsaldeko 20:00etatik aurrera



Bonbereneako futbol zelaian jarriko dute eskenatokia. 1200 lagunentzako lekua atonduko dute.

Zaila baina ez ezinezkoa. Musika taldeek gustura onartu dute Bonbereneak luzatutako gonbita. Hamabi taldeek joko dute lehendik, behin, birritan edo hirutan jo duten estenatoki berean. Gainera, talde batek baino gehiagok hitzartuta zituen kontzertuak bertan behera utzi ditu Bonberenean egoteagatik. Talde-

en ahalegin hau zerbaiten isla garbia da: "Taldeak oso inplikaturik daude Bonberenean. Etxeko parte sentitzen dira. Bonberenearen filosofian sinesten dute". Horregatik, inork ez du hutsik egin nahi izan. Bonberenearen birkokapenaren alde lanean ari diren lagunei euren bebesa adieraztera gerturatuko dira.

Lagun arteko kontzertua izateaz gain, Tolosako etxe okupatuan prestatu duten karteldegia badu beste ezaugarri bat: Denak Euskal Herriko taldeak direla, eta salbuespen txiki bat kenduta, denek euskaraz abesten dutela. Hasiera hasieratik, argi zuten baldintza hori ezinbestekoa izango zela. Bonberene-



Naiz roxa

Pasaitik datorzkigu. Matxet, Jousilouluko abeslari izandakoaren proiektu berria dugu. Grind-core, metal, hardcore, trash, erritmo pisutxuak, melodia, experimentazioa, elektronika dantzagarria, abidura... erritmo aldaketa ugari, suizar ordulariek duten zehaztasunarekin; erregistro mordera denbora gutxian. Makineria pisutsua da, sormen eta amorruez betea. www.naizroxa.com



Kerobia

2008ko apirillean euren hirugarren lana kaleratu zuten: *Materia organikoa* eta gainerakoak (2008, Autoproduktzioa). Lan hau trilogia baten lehenengo zatia besterik ez da. Urte eta erdiko epean kaleratuko da trilogia osoa. 2009ko otsailarako espero da bigarren zatia eta 2009ko urrirako hirugarren eta azkenkoa. www.kerobia.com



Zea Mays

Zea Mays taldea Bilbon sortu zen 1997an. Bost diska dituzte, "Zea mays" 1998, "Elektrizitate" 2000, "Harrobian" 2002, "Sortuz, grabitatearen aurka" 2005, "Morphina" 2007. Azken diska, *Morphina*, Lamiña producciones-en grabatu dute Jose Lastra teknikaria izan delarik. Hamabi abestik eta dvd batek osatzen dute diskoa eta Bonberenea ekintzak ekaleratu du. www.zea-mays.com



Sorkun eta Vice presidentes

Sorkunentzat ametsa izan da basamortuan grabatzea, eta izugarri gustura ibili da Kalifornian: "Coachellako bailarara iristea izugarria izan zen. Uste baino hobea izan zen dena; eguzki argitik hasita, bolada horretan ezagututako musikarienganaino". Kandak, Vice Presidenteseko kantariak, Euskal Herrian baino musika kultur handiagoa somatu du Kalifornian. "Era naturalean eta grina tsuan bizi dute han musika". Iritzi bera du Sorkunek. www.sorkun.org



Anestesia

Anestesia taldeak disko berria argitaratu zuen azaroaren 24an, *Bonberenea* Ekintzak plataformaren eskutik. Terapia izena du. Taldearen bosgarren disko luzea da. Anestesia indarberriturik dator. Bere bidetik alendu gabe, doinu sendoa osatu du, mardulaz; zuzena, gordina eta apaindurarik gabekoa. Diskaren grabaketan Ibon (ahotsa), Beloki (bateria) eta Mikel Kazalisk (gitarra, baxua eta ahotsak) hartu dute parte, Zarauzko Fideleña estudioan. www.anestesia88.com



Makala DJ

Arka (Elektroradiograma) eta Makala (Boom Shaka Laka), Gaztea irratiko dj-ak, batu dituzte bere indarrak euskal herriko hainbat hiriburuko klub eszena bultzatzeko. www.makala.info



Larunbatean kontzertuak hasi aurretik Bonberenea txaranga eta Mulambo ariko dira.

an beti gertatzen den bezala, honek ere badu bere azalpena. "Luxuzko karteldegia da aurkezten ari garen hau. Zeren gaur egun, badirudi kanpoko taldeak ekarri behar dituzula jaialdi on bat egiteko. Euskal Herrian talde oso onak ditugu, Euskal Herri-

kanpo izugarritzko arrakasta dutenak eta jaialdi garrantzitsuetan jotzen dutenak". Patxi Muñozaren arabera, etxeko produktuari merezi duen balorea ematen ikasi behar da. Hori egiten ez dakienak, aukera paregabea izango du irailaren 12 eta 13an.

irailak 13 larunbata Bonberenea futbol zelaia arratsaldeko 20:00etatik aurrera



Willis Drummond

Baionako eta inguruetako musikariek osatzen dute Willis Drummond taldea. Hiru urtez lanean eta kontzertuak ematen ibili ondoren, "Anthology" deitu lehen diskoa kaleratu dute. Rockaren estilo ezberdinak uztartzen dituzten musikari hauen arabera, konposizioak egiterakoan ez dute inolako mugarik ezartzen eta bluesa edota beste musika estiloak jorratzea gustuko dute. Beren diskoan orain arte egindako abesti onenak bildu dituztela diote eta horregatik diskoa "Anthology" izendatzea erabaki zuten. www.willisdummond.net



Inoren ero ni

Inoren ero ni Andoainean elkar-ten diren 4 lagunez osaturiko taldea da. BAP! taldearen errautsetatik sortu zen. Izan ere Drake, Okene eta Mikeli (hirurak BAP!en aritutakoak) Borja (Purr) gehitu zitzaizten eta horrela hasi zen Inoren ero ni. 2007an Drake taldea utzi zuen. Aurretik Gronhölms diskoa izango zena grabatu zuen eta baxu jotzaile berri baten bila hasi ziren Mariano Hurtadorekin topo egin zuten arte.

www.myspace.com/inoreneroni



Lisabó

Etiketena industriaren asmakizun bat da. Ez du ezertarako balio. Post-hardcore etiketaren azpian zeharo gauza desberdinak topa ditzakezu. Post atzikiaren erabilera, adibidez, cool ukitua ezartzeko egiten da. Post-rock, post-hardcorea, post-punk... dena da post. Eta Lisabören musikaz eskotan esaten dute: "musika arraroa egiten dute". Eta, tira, ez da a-b-a-b egitura duen musika, baina arraroa ez da. Gainontzekoekin alderatuz, ba igual desberdina da, baina arazoa izan liteke alderantzizkoa. www.myspace.com/lisaboetzekuak



Deabruak teilatuetan

Berriz elkartzeko baldintzak eman dira eta aukera ahalik eta ondorenean aprobetxatzen saiatu dira Aritz Mendieta (kantaria), Iñigo Arruti (baterijolea), Joni Ubeda (baxua eta Imanol Ubeda (gitarra). Guztira 11 dira idatzi dituzten kantuak, "1973" izenburupean bildu dituztenak. Beraz, elkartzea bere horretan albiste ona bada, bada beste nobedaderik: kantu berriekin itzuli direla.

www.deabruakteilatuetan.com



Delorean

Milurtekoaren hasierarekin hard-corearen olatuetan hasi eta elektronika&rock dantzagarrian edo indietronikaren uretan surfa egiten bukatu duen Zarauzko laukotea da Delorean. Argumentuak hauek: ermito kutxa bat bailizan erabilitako bateria, lurrazpiko baxua, sintetizadore analogikoak, delay-dun gitarra eta ahots urrun eta indargabe bat. 80ko hamarkadetakoa doinu eta eritimoak gogorra ekarriko dizkigute. www.myspace.com/deloreanandanz



Bad Sound System

Irungo DJ eta MC kolektiboa. Maiz Fermin Muguruzaren Dub Manifest zein Kontrabandaren emanaldiak itxi izan dituzte Euskal Herrian. Hip hop, rap, dance hall, ragga eta free style...

www.badsoundsystem.com

MANIFESTUA

Bonberenea sutan jaialdia urte guzti hauetan kontzertuetan eta musika ekintza ezberdinetan aritu den pertsona eta talde-sareak antolatu duen ospakizun bat da.

Honetaz gain, *Bonberenea sutan* Bonberenearen proiektu kolektiboa bermatuko duen ekinaldi berriaren hasiera izango da. Bonberenearen egoitzaren birkokapenak bultzaturik, ekinaldi honek bonberenea zentzu guztietan berokupatzea ekarriko du. Funtzionamenduan bide berriak irekiko dira, esperientzia berriak bultzatu, Tolosako taldeekin harremanak indartu... erro berdinetik haziko den proiektu berria eraiki asmoz. Jaialdian ateratako dirua ekinaldi berri hau bultzatzeko erabiliko da.

Azken urteotan elkarlanean bildutako esperientziak berretsi digu, kultur ekintzak eta sormena ulertzeko eremu askeak sortzea posible izateaz gain gauzatu egin daitezkeela.

Sormenaren suhiltzaileen aurrean izan piromano eta zabaldu sua

Piromanoak: Bonberenea, Bonberenea txaranga, Sanblasipiko, Mulambo, Hondarribiko Olearso kulturgunea, Arrasateko gaztetxea, Irun, Bera eta Gasteizko lagunak, Gor, Bidehuts, Kushi institute (Amsterdam), Musika taldeak...

Hein handi batean, Bonbereneak hainbat euskal musika talderen egoera bera bizi izan du. Herri-kanpo baloratu behar izan dutela lehenik, gero herrian bertan errekonozitua izan dadin. Izan ere, Bonbereneak Tolosan eta eskual-

dean ez ezik, Euskal Herri mailako ekimenetan hartu du parte. "Aurten Iruran ospatuko den Kilometroak 08ko kantua eta bideoklipa grabatu ditugu. Baina aurreko urtee-

(hurrengo orrian jarraitzen du)



tan, 18/98-ko auziperatuei laguntzeko errekopilatorioa, Irungo AEKko beteranoen bilduma edo eta Lapurdiko Gure Irratiaren aldeko diskoa egin genituen". Hauek eta beste hainbat proiektu burutu dira San Estebango etxean.

100 PERTSONA LANEAN

Aparkalekuko zaintzaileak, barrako eta sukaldeko langileak, soinu teknikariak, sarre-rako langileak... Guztira 100 lagun inguru, 100 "piromano" arituko dira hilaren 12 eta 13an lanean. Bonbereneako futbol zelaian jarriko dute estenatokia. Zelaiaren alde

batean berriz, 15 metroko barra egokituko dute eta etxe barruko taberna ere zabalik egongo da. Jatekoa ere eskainiko dute. Ikusentzuleentzat ogitartekoak eta lanean ari diren "piromanoentzat" berriz janari makrobiotikoa. Bonbereneako sukaldeko arduraduna, Lander Zabalza, aspaldiko laguna izango da. "Amsterdamen jatetxe makrobiotiko ospetsu bat du Landerrek eta mundu osoan zehar ibiltzen da hitzaldiak ematen Kushi Institute-ko zuzendari bezala. Espreski jaialdirako etorriko da hona". Etxearen kanpoaldera itzuliz,

bi pantaila erraldoi ere jarriko dituzte. Bat estenatokia bertan, eta bestea etxearen atarian. Aipatutako pantailetan, Bonbereneari buruzko dokumental bat proiektatuko da talde batek amaitu eta bestea hasi bitarteko tarte horretan. Gutxi gorabehera, 1200 lagunentzat atonduko dute etxea.

Sarrerak eskuragai daude jada Tolosako Orbelan, Denak eta Eguzki tabernetan. 12 euroren truke eskuratu daitezke, bai puntu hauetan eta baita egunean bertan Bonberenean ere. Kontzertuak 20:00etan hasiko dira, baina

aurretik Mulanbo eta Bonberenea Txaranga arituko dira giroa berotzen.

Asteburu handirako, gogoia eta ilusioa piztuta dituzte Bonberenean. Dena kontrolpean dute, gauza bat izan ezik: Eguraldia. Azken hau aldekoa bada, ziur asteburu ahaztezina izango dela San Estebango etxera gerturatzen direnentzat, musika taldeentzat eta noski, Bonbereneako lagun guztientzat. Eta hau ondo irteten bada, zergatik ez datorren urtean beste bat? Azken batean, gauzatzen diren ekimenak dira sua auspostzen dutenak. ■

BONBERENEAN SUTAN


Bonbereneak eskainita, irailak 12 eta 13an egingo den Bonberenea Sutan jaialdirako, egun bakoitzerako bina sarrera irabazi dituzte Galtzaundiko ondorengo bazkideek

Mila Otamendi (Tolosa)
Amaia Agirre (Tolosa)
Ainara Zubeldia (Ibarra)

TOLOSA >>> LAU URTEKO ETENALDIAREN OSTEAN BIGARREN ALDIZ OSPATUKO DIRA AURTEN IZASKUN AUZOKO JAIK

Izaskun auzoko jaiak berpiztuta

la lau hamarkadatan, urtero urtero ospatu izan dira Tolosako Izaskun auzoko jaiak. Indar handiko festak ziren. Bertakoek zein Tolosako gainontzeko auzoetako bizilagunek bere sentitzen zituzten jai hauek. Duela lau urte ordea etenaldi bat gertatu zen. Hiru urte jairik gabe eman ondoren, hauek berr-eskuratzeko nahia zabaldu zen auzoko gazteen artean. Iaz antolatutako jaiak erantzun bikaina izan zuten. Izaskun Auzoko Festa Batzordeak erantzun bera edo hobea espero du hilaren 5, 6 eta 7an ospatuko diren jaietan.



Leire Zubeldia

Izaskun auzoko gazteek eta bertakoak ez izan arren, auzoan bizia egiten duten pertsonak osatzen dute Izaskun auzoko Festa Batzordea. Duela bi urte inguru hasi ziren jaiak berr-eskuratzeko ideia lantzen: “Jendearentzat erakargarria izango zen ekitaldiren bat antolatu nahi genuen auzoan. Orduan, bertako jaiak antolatzea helburu bilakatu zen guretzat”, kontatu dute festa batzordeko kideek. Izaskun auzoko jaiak festa handi bat bezala gogoratzen dituzte egun antolaketa lanetan burubelarri ari diren gazteek. “Umeak ginenean

ikastolatik atera eta auzoko txupinazora joaten ginen. Garai haietan Izaskun auzoko jaiak herriko indartsuenetari-koak ziren eta gure egutegian gorritz margotuta egoten ziren egun haiek”. Gazte hauen aurreko belaunaldiek, “festa handi bat” bezala definitzen zuten. Egitarau oparoa prestatzen zen, goiko eta beheko plazetan kontzertuak izaten ziren.

Zerk eragin zuen orduan horrenbeste indar zuten jaien galbidea? Egungo jai batzordean oso garbi dute erantzuna: “Festa duin batzuk aurrera ateratzeko finantziario on bat eta jende askoren lana eskatzen du. Gure aurreko belaunaldiek oso ondo egiten zuten hori. Gure ustez, herentzia hori ez zaigu ondo transmititu ondorengo belaunaldia osatzen dugunoi. Intentziorik gabeko komunikazio falta horrek eragina

izan zuen Tolosako auzoetako jaietan”. Zorionez, eten hori iraganeko kontua da, eta egungo belaunaldi berriak burubelarri ari dira lanean, urtez urte jai hobegoak antolatu eta garai batean zuten indarra berr-eskuratzeko.

LEHENGO ETA ORAINGO EKITALDIAK EGITARAUAN

Iaz antolatutako jaiak jasotako erantzun onak, aurtengo irailerako are egitarau hobea prestatzeko motibazioa ekarri zuen festa batzordera. “Oso gustura geratu ginen. Azpimarratzekoa da auzoko bizilagun eta elkarteek erakutsi zuten jarriera positiboa”. Aurtengo

egitarauan, Izaskun auzoko jaien oinarria diren auzo bazkaria, sagardo dastaketa eta gauzez eskainiko diren kontzertuak txertatu dituzte. Aipatutakoek gain, garai batean egiten zen danborrada berr-eskuratu-ko dute aurtengoa: “Aurtengo erroka da danborrada berr-eskuratzeko. Iaz ez zen ekitaldi hau egin, eta duen garrantziaz jabeturik, urtero egin beharreko ekintza dela uste dugu”. Beste berrikuntzen artean, Mulanbo perkusio taldea eta Udaberri dantza taldearen emanaldiak aipatu dituzte antolatzailerak. Irailaren 5an 18:00etan hasiko dira jaiak su-ziaria eta txokolatadarekin. ■

R I C H A R D
A R G A Z K I L A R R I A K

nafarroa etorbidea, 4 - 20400 tolosa (gipuzkoa) tfnoa, 943 652 600
e-mail: fotorichard@fotorichard.com

IRASTORZA GARRAIOAK

Iruñea etorbidea, 14A • Usabal industrialdea
P.K. 209 Tolosa • Tel.: 943 670 248 • Faxes: 943 671 865

Meditazioaren psikologia




MEDITAZIOAK TEKNIKA BEZALA NORBERAREN BARNE ESPERIENTZIEKIN KONEKTATZEN LAGUNTZEN DU

Inigo Jimenez

Psikologiaren izaerak grezierako bi hitzetan du jatorria: “psiqué” eta “lógos” hitzetan alegia. Psikologia eta meditazioaren elkarketa ulertzeko ezinbesteko terminoak dira hauek. Greziera klasikoan, “psiqué”-k, arnasketa, hartsa, esan nahi du. Hitz berari, txineraz “qi” edo “chi” esaten zaio. Bilakaera baten ondorioz, “psique” eta “chi” hitzek ondoko esanahi hau hartu dute: bizi-energia, espiritua, indarra... Esanahiaren eboluzio

honek ikuspuntu aldaketak bat ekartzen du: Indargunea “energia” izatean, erreality-



“Meditazioaren teknikak osasun psikologikoan aplikatzeak zera bilatzen du: pertsona orainean, bizi duen unean zentratzea. ‘Hemen’ eta ‘orain’ dagoenak axola du”

tearen oinarria ez dela materiala azpimarratzen da. Psikologian berriz, errealitytearen oinarria materialean kokatzen dute. “Qi” edo “Chi” hitzek bidadak zabaltzen dituzte gaur egungo lengoaietan sartzeko. Tai-chi, Chi-kung eta mota honetako ekintzen izendapenaren bidez egin dute bide hori.

Mendebaldeko kulturaren, “meditatu” hitzak zera esan nahi du: Arreta osoa eskainiz, pentsamendua gauza jakin baten gainean fokatzea, eta gauza hori ezagutzeko zein erdiesteko bide egokiak hausnartzea. Beraz, meditazioak, zerbaiten gaineko hausnarketan datza.

Ekialdeko kulturaren, “meditazio” hitzak arnasketa lantzeko ariketa batzuekin du zerikusia eta kontzentrazio espiritual eta mentala lortzeko teknikak menperatzearekin. Ekialdeko arnasketa ariketa eta teknika meditatiboek, arreta lantzen dute. Arreta erabatekoa eta jarraia, kontentplazioa. Une oro eta edonon zaudela ere, beti kontziente mantentzea bilatzen du. Hau da: Pentsatzeak ez du ekintza bat izan behar, pentsamendua behatzeko, arreta jarrezko objektu bat da.

Meditazioaren ideia nagusia beraz, arreta da. Prozesu psikologiko hau, Psikologia karreraren derrigorrezko irakasgaia da.

Aristotelesek (k.a. 384-322) esaten zuen “psique” hitzak tximeleta ere esan nahi zuela. Hemendik uler daiteke, tximeleta hegan dabileneko irudia, adimen urduria adierazteko erabili izana eta atsedean hartzen ari den tximeletaren irudia erabiltzea adimen kontentplazailera irudikatzen. Mendetan, tximeleta ikasketak psikologikoen sinboloa izan da. XX. mendean ordea, “psique” terminoa eta berak dakarren guztia bazterturik geratu zen positibismoaren eta materialismoaren eskutik. Baina azken bi hamarkadetan, kontzientzia egogaren gaineko azterketak ugartu egin dira eta “psique” delakoa psikologiaren lehenengo lerroan kokatu da ostera.

Meditazioaren teknikak osasun psikologikoan aplikatzeak zera bilatzen du: pertsona orainean, bizi duen unean zentratzea. “Hemen” eta “orain” dagoenak axola du. Iraganean edo etorkizunean bizitzeak (pentsatzeak), oraina esperimintatzea, sentitzea, eta norberaren proiektu pertsonalaren parte kontsideratzea galeratzen du. Meditazioak, teknika bezala norberaren barne esperientziarekin batzea ahalbidetzen du, autobabesean laguntzen du, autozagutzan sakontzeko bideak ematen ditu eta abar. Norbere buruaz kontziente denak, espazio propio bat eraikitzeak aukera du. Espazio hau arretaren, norbere beharren zaintzaren eta ongizatearen lantegia da. ■



Baserriko produktu naturalak
Mahala baserria • LEABURU
Tel.: 943 673 499

Gozotegia

Okindegia

ECEIZA

P. Gorosabel, 34 - Telf. 943 655 161 - San Francisco, 8 - Telf. 943 651 916



Marga Etxezarreta, Budaren bidetik zoriontasunaren bila

MARGA ETXEZARRETA BARTZELONAKO NAGARJUNA INSITUTU BUDISTAKO ZUZENDARIA DA.

Leire Zubeldia

Galtzaundiko irakurle askori eza-guna egingo zaio ale honetako pertsonaia.

70. hamarkadan, zazpi urtez ibili zen irakasle Tolosako Eskolapioetan eta ondoren 20 urte igaro zituen Laskorain Ikastolan, 1997. urtera arte. Lehen bezala orain ere, Margaren bokazioa irakastea da. Budismoaren bitartez, ikasgai-rik onena erakutsi dezake: Sufrimenduaren atzaparretatik nola askatu eta zoriontsu nola izan, alegia. Marga irakasle izan zenutenei interesgarria egingo zaizuelakoan jarraitu du Galtzaundik moja budistaren arrastoa. Abuztuko opor

Marga Etxezarreta da bere herrian, Zizurkilen, baita hogeit hamar urte lantoki izan zuen Tolosan ere. Egun bititoki duen Bartzelonan ordea, Ani-lazinez deitzen diote. Moja budista egin zen eta gaur Nagarjuna Insitutuko Budistako zuzendaria da. Bere bizitzan bide ugari urratu ditu zoriontasunaren bila. Azkenean filosofia budistan aurkitu du helmuga horretara eramaten duen bidezidorra. Zoriontasun betera iritsi ondoren, egin duen bidea besteei erakustea da bere erronka.

egunetan Zizurkilera egin duen bisita baliatu dugu berarekin egoteko.

Bartzelonan bizi zara egun, Zizurkilen duzu familia, Durangon jaiotako zara eta Tolosan urte asko eman dituzu irakasle moduan lanean. Mantentzen duzu harremana Tolosako herriarekin?

Tolosan esate baterako, nire izeba eta bi anai-arreba ditut. Beraz, etortzen naizen guztietan joaten naiz Tolosara, eta bide batez, ematen diren aldaketa guztiak ikusten ditut.

Tolosan urte askotan egin zenuen lan irakasle moduan. Non eta zenbat denbora?

Lehenengo, 7 urtez Eskolapioetan egon nintzen. Gero, bi urte Kolonbian, Bogotan igarotzen nintzen. Pedagogia aurreratua- ren bila joan nintzen hara. Handik itzuli eta Tolosako Laskorain Ikastolan hasi nintzen irakasle lanetan. 20 urte igarotzen bertan 1997. urtean Bartzelonara joan nintzen arte.

Irakaskuntzarako zaletasuna amarengandik jaso al zenuen?

Bai. Txikitik nire ama ikusten nuen klaseak ematen. Klaseak eskolan eta eskolatik kanpo ematen zituen. Irakurtzen, idazten eta ezkondu behar zuten neskei laboreak erakusten aritzen zen. Nik hori ikusi

(hurrengo orrian jarraitzen du)

nuen eta hori erakutsi nahi nuen nola edo hala.

Bartzelonara budismoak eraman zintuen. Nola ezagutu zenuen budismoa?

Ni txikitatik oso katolikoa izan nintzen eta nire familia ere oso katolikoa zen. Erlijioak asko betetzen ninduen. Baina iritsi zen momentu bat, non erlijio horrek eta erlijio hori zeramaten pertsona askok ez nindutela betetzen, ez nindutela konbentzitzen. Iruditzen zitzaidan, erlijioak esaten zuenak eta hori jarraitzen zuten pertsonen ekintzek ez zutela bat egiten. Orduan, erlijioarengandik aldentzen hasi nintzen. Beste filosofia batzuetan hasi nintzen begiratzen. Momentu hartan Bogotara joan nintzen. Han, izugarriko beharra eta miseriarekin egin nuen topo. Jendeak jatekorik ere ez zuen.

Kolonbiatik 1977an itzuli nintzen. Franco hil berritan trantsizioan sartu ginen. Partidu politikoak lanean hasi ziren eta horietako batean sartu nintzen. Hiru edo lau urtez egon nintzen zeregin horietan. Baina ikusten nuen, politikan lan eginez gero ere ez nuela zoriontasuna lortzen. Beti gustatzen ez zitzaizkidan gauzak zeuden. Orduan politika ere alde batera utzi nuen. Bartzelonara joaten hasi nintzen. Han “terapia alternatiboak” izenez deitzen zaie-nekin egin nuen topo. Pentsatu nuen, bide horretatik bila nenbilen hura lortzea posible izango zela. Terapia hori egiten ari ziren kide batzuk budismoarekin kontaktuan

zeuden. Kide batek Dalai Lamaren hitzaldi batera eraman ninduen. Han Dalai Lamak esan zuena, bere filosofia, izugarri gustatu zitzaidan. Pedagogia aldetik, ordura arte entzun nuen metodori onena iruditu zitzaidan. Proba egin nuen: Ikasten hasi nintzen eta zentro bat ireki genuen. Gaur, zentru hori insitutu batean bilakatu da eta bertako zuzendaria naiz.

Zer esan zuen Dalai Lamak zuri konbentzitzeko?

Bila nenbilen filosofiarekin egin nuen topo. Nire bizitzan inportanteena irakaskuntza izan da. Nahiz eta filosofia batetik bestera joan, beti irakaskuntza izan da haria. Dalai Lamak esan zuena zen, posible dela zoriontsu izatea, posible dela sufrimendua geratu araztea. Horretarako, lehenik eta behin sufrimendua ulertu behar dela zihoen, eta gero, sufrimendu hori nondik datorren ikasi behar dela. Berak esaten zuen, sufrimendu hori sortzen duten arrazoi batzuk daudela. Arrazoi horiek kanpoan egon daitezkeela, baina baita barruan ere, eta barru-
koa, posible de-

“Kide batek Dalai Lamaren hitzaldi batera eraman ninduen. Han Dalai Lamak esan zuena, bere filosofia, izugarri gustatu zitzaidan”.

la transformatzea. Gure esentzia, zoriontasuna da. Sufrimenduaren arrazoiak ezabatzeko erantzun erantsia da. Zoriontasuna, altruismoa (beste laguntzeko gogoia eta ahalmena) eta jakinduria. Hori da esentzia.

Hitzaldi hartan, Dalai Lamak bizitzako motorra eman zuela iruditu zitzaidan. Orduan esan nuen: *goazen ba hau ikastera! Eta berak esaten duena egia bada, gero, erakutsi egingo dugu.* Horrela talde bat sortu genuen. Lamak ekartzen genituen hitzaldiak eman zitzaizten. Jendea etortzen hasi zen. Gero eta jende gehiago biltzen zen hitzaldietan. Azkenean ikusi genuen posible zela geuk zentru bat sortzea eta Lama haiek proposatzen zizkiguten ariketak eta praktikak egiten hastea. Horrela zentroa ireki genuen. Talde handi bat osatu genuen, dirulaguntza ekonomikoa lortu genuen eta Lama bati zentrorra etortzeko eskatu genion. Baietz esan zigun, eta horrela filosofia budista irakasteko ikasketak antolatu genituen. Momentu honetan ikasketak sistematikoki batzuk ditugu. Budismoaren oinarriak ez dutenei duela 30 urtetatik budismoa praktikatzeko ematen diete klasea. Gero, erdi mailako irakasle batzuk ditugu eta denbora gehiena daramagun ikasleei Lamak berak ematen dizkigu eskolak. Gure Lamak monastegitza egin zuen. Budistek Tibetetik alde egin behar izan zutenean Indiako monastegi batera

joan zen, eta han, 20 urteko ikasketak egin zituen.

Irakaslea zara baina aldi berean beti izango zara ikaslea...

Bai. Zoriontasuna bilatu arte hala izango naiz. Gertatzen dena zera da: Ikasten duzunari balioa ikusten diozu. Zuretzat onuragarria dela konturatzen zara. Orduan sakontzen hasten zara: Aspektu bat da ikaslea eta beste aspektu bat da ikasten duzuna beste emateari. Ni, ikasi dudana ematen ari naiz orain. Meditazioa ematen dut astean bi egunetan, eta beste praktika batzuk ere gidatzen ditut. Baina institutuan nire egin behar garrantzitsuena zuzentzea da.

Dalai Lamak esan zuenez, zoriontasuna bilatzeko sufrimendua transformatu behar da. Nola egiten da hori?

Edozein emaitza, zergatiak eta baldintzak elkartetik sortzen da. Ez dago sagar bat ez badago sagar hazi bat. Baina sagar hazi hori gela itxi batean badago ez da haziko. Baldintzak jarri behar dizkiozu: lurra, haizea, euria. Loteria tokatzea emaitza izango litzateke: Hori gertatzeko orde baldintza eta zergatia behar dituzu: Baldintza loteria egotea da, eta zergatia, zure barruan zorte hori egotea. Era berean, zoriontasuna ematen duten emaitzak sortzeko, baldintzak eta zergatik egon behar dute, eta gauza bera sufrimendua sortzen duten emaitzak gertatzeko. Adibidez, zure bikotekidea beste pertsona batekin maitemintzen da. Baldintzak hirugarren pertsona hori eta zure bikotekidearen maitemina dira. Guk baldintza horiek ezin ditugu kendu. Baina kendu dezakeguna zure barneko zergati hori da. Guk barruan dauzkagu, gorrotoa, enbidia, zeloak, traizioa... Zeren behar bada, zuk bikotekidea lehenagotik traizionatu ez bazenu ez zenuke



zergati hori izango. Emozio horiekin egiten ditugun gauzek Karma sortzen dute. Karma akzioa da. Altruismotik, jakinduriatik edo pozetik egiten ditugun akzioek Karma positiboa lortzera eramaten gaituzte. Bestelako emozioetatik egiten ditugun gauza guztiek berriz Karma negatiboa sortarazaten dute. Karma soilik ez, tendentziak izaten ditugu. Baina guk ez dakigu ze tendentziak ditugun barruan. Hori lehen aipatu ditugun emaitzek erakusten digute. Emaitzak aldatu beharrean barrukoa aldatzen joaten gara emaitzetatik ikasita. Budak hori egin zuen: *Nik sufrimendutik alde egin nahi dut.* Meditatzan hasi zen. Ze emozio zituen eta emozio horietatik zer nolako egoerak sortzen ziren ikusi zuen. Emozio horiei antidotoa jartzen hasi zen. 72.000 emozio aurkitu eta hauen 72.000 antidoto bilatu zituen. Horrela, metodo bat sortu zuen. Guk metodo hori ikasten dugu. Egin behar dena zera da: Dakienari entzun, eztabaidatu eta meditatu. Hiru jakinduriak dira horiek. Lege-rik garrantzitsuena berriz ondokoa da: egin esaten duzuna. Egiten duzunarekin sortzen baituzu zoriontasunera eramango zaituen Karma.

Zer eman dizu budismoak?

Kanpoan zoriontasunaren bila ibili nintzenean frustrazio batekin bukatzen nuen beti. Nik pentsatzen nuen, gauzak solidoak zirela. Pertsonak ziren bezelakoak zirela, ez zirela aldatzen, zorionsu izan behar nuela nahi eta nahi ez... Baina

gehienetan oker nengoen. Pertsonak aldatu egiten ziren, egun batean gauza bat esan eta hurrengo egunean beste bat egiten zuten. Ni ere aldatu egiten nintzen. Nire pertzepzioa eta errealitatean gertatzen zena ezberdinak ziren. Orduan beti frustraturik geratzen nintzen. Budismoak ez dit bilatzen nuen ziurtasuna eman, baina ziurtasun ezaren arrazoia eman dit. Arrazoia da, gauzek



ezin dutela nik nahi dudana bezala izan. Dena aldatu egiten dela ulertzera iristen banaiz, orduan jakingo dut, aldaketa horietara egokituz etorriko dela zoriontasuna.

Bestetik ikasi dut, barnean zenbat eta desira gehiago eduki orduan eta sufrimendu gehiago sortzen dela. Sufrimendua ondorioztatzen duten zergati asko sortu ditut nire bizitzan. Hori nire barnera begiratuta ikasi dut. Baina kanpora

begira, ikusi dut besteek ere sufritu egiten dutela, emozioak dituztela eta emozio horiek aldatzen badituzte zoriontsuago izango direla. Horrela, konturatu naiz egoismoarekin amaitzeko modua badagoela.

Baina gauza guztien gainetik, niretzat garrantzitsuena zera da: Irakaskuntzan erakutsi dezakedan gauzarik onena hauxe dela. Nola zoriontsu izan eta sufrimendutik nola

tzen ematen dut. Hori ere budismoak eman dit azken batean.

Jende askok jotzen du zuengana sufrimendutik libratzeko laguntza eske?

Bai, gero eta gehiago gainera. Institutura datorren jende-ari harrera egiten diot lehenik. Nik dakidanarekin lagundu egiten diot, baina sufrimendu handia duten pertsonak Lamarengana eramaten ditut.

atera, alegia. Orain ez daukat bizimodu konbentzional bat. Moja egin nintzen, nire bizitza klaseak antolatzen, meditazioak ematen eta laguntza eske datorren jendeari lagun-

Lamak asko daki. Berak sufrimendu hori ken dezake eta hobeto bizitzeko aholkuak ematen dizkio jendeari.

Gero eta jende gehiagok jotzen du guregana. Lehen pentsatzen genuen sufrimendua ezer ez edukitzeak sortzen duela. Orain ordea denetik dugu eta ez gara zorionsu: Gai-xotasunak etorri egiten dira, maitatzen duzun jendea hil egiten da... Hori dena dirua edukita ere ezin duzu konpon-

"Budismoak ez dit bilatzen nuen ziurtasuna eman, baina ziurtasun ezaren arrazoia eman dit."

Beti nahi jatekoa
 Garaian garaiko janariak eta arraikiak bereziak
 Tel.: 943 671 920
 Errementari kalea, 16 • 20400 Tolosa

ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA
 Foruak, 5-bis • TOLOSA
 Tel.: 943 652 712

KONTSULTA PSIKOLOGIKOA
 Iñigo Jiménez
 Psikologoa eta terapeuta gestaltikoa
 Sta. Mª de la Asunción klinika
 Gazte eta helduak | Dependentsia eta
 Dolu-terapia | menpekotasun
 Psikoterapia-prozesua | terapiak: tabakismoa
 astearte eta ostegunetan, 15:00 - 21:00

ZABALA DESGUAZEAK
 Kudeatzaile baimenduak EU2/111/04
 Beotibar industrialdea, 18 - BELAUNTZA
 Tel./Faxa: 943 671 790 - Mugikorra: 696 593 347

du. Jendeak sufrimendu fisikoa du, baina sufrimendu moralak izugarria da. Baloreak falta zaizkigu. Gure aitek eta amek erlijioa eta honen baloreak zituzten, baina oraingo umeek ez dute ezer. Euren baloreak dirua eta kontsumoa dira. Hauek falta direnean ezer gabe gelditzen dira. Alkohola eta drogan bilatzen dute askok ihesbidea. Baina horiek ez dute zorientasunera eramaten. Egoera horretan dagoen jendea asko etortzen zaigu. Meditazioa egiten hasten dira. Ikusten dute meditazioak onurak eragiten dizkiela eta azkenean ikasten hasten dira.

Budismo tibetarra arriskuan dagoela esaten da...

Bai, arrisku handian dago. Gazteak Dalai Lama ezagutzeko ateratzen dira Tibetetik. Irakasgaiak entzuten hasten diren heinean hauen garrantziaz jabetzen dira eta ikasteko gogoia sortzen zaie. Horrela, unibertsitate monastikoetan sartzen dira, hauekako batzuk Lamak izatera iristen direlarik. Baina Dalai Lamak esaten duena da, bera hiltzen denean, ez dela egongo atrakzio hori. Tibetarrak Tibetetik geratuko direla eta munduko beste jendea ez dela monastegietara joango.

Monastegietan duela 1000 urteko irakaskuntza dago. Budak duela 2500 urte sortu zuten irakaskuntza hori. Gero, urteen poderioz garatzen joan zen. Duela 1000 urte, Indian Nalanda izeneko monastegitza bat egon zen. Han izugarritzko garapena izan zuen Budismo-



Dalai Lama hitzaldi bat ematen Ladakh eskualdeko Leh hiririk gertu, India.

Juana Artola

ak. Indiara islama iritsi zenean Tibetera itzuli zen filosofia hori. Tibetetik oraindik gehiago garatu zen. Orain esaten da, budismo tibetarra desagertzean, Nalanda eta Tibetetik garatu zen guztia desagertu egingo dela.

Baina munduan zehar budismoa hedatzen ari da. Hori ez al da positiboa.

Bai oso positiboa da. Baina budismoa Indiatik Tibetera eramanean 100 urte behar izan zituzten sanskriticotik tibetarrera itzulpena egiteko. Mendebaldeko gizartera duela 30 urte igaro zen budismoa. Indar gehiena Estatu Batuetan du, Europan ere indarra hartzen hasi da, eta Australian oinarri sendoa du. 1968. urte inguruan hasi zen hedatzen. Hippiak ez zeuden gustura hementxo egoera eta gerrekin. Budismoarekin kontaktatu eta Lamak ekartzen hasi ziren.

Hortik etorri zen filosofia honen hedapena. Baina budismoa mendebaldeko gizarterean ume bat da oraindik. Ez dago unibertsitate onik. Zentruak zabaltzen hasi gara bai, baina guk oso azaleko ikasketak eskaintzen ditugu. Gaur egun, Tibetetik ere ez dago unibertsitate onik budismoa sakon lantzeko. Soilik Indian daude horrelakoak, baina han berriz jendea behar dute nori erakusi izateko. Eta normalean hementxo jendeak ez du Tibetanoa ikasten. Han tibetanok ematen dituzte ikasketak.

Tibetetik albiste larriak iritsi zitzaizkigun urte hasieran. Nolako egoera bizi dute une honetan han?

Gure Lamaren familia Tibetetik, Lhasatik gertu bizi da. Tibetetik atera zenetik ez da inoiz gehiago itzuli, zeren Tibetetik itzultzen diren tibetarrak guztiak kartzelan sartzen di-

tuzte bi urterako. Egunero miaketak egiten dituzte etxetan. Horretaz gain zeharo zapalduta daude. Trena jarri zutenetik, Txinatik Tibetara hiru tren etortzen dira egunero txinatarrak beteta. Hauek hutsik bueltatzen dira Txinara. Egun, txinatarrak tibetarrak baino gehiago dira Tibetetik.

Moja budista bezala geratzen al zaizu ametsik betetzeko?

Moja batentzat hoberena komunitate batean egotea da. Hori da nire ametsa. Oraingo zentruan bizi naiz, baina moja gehiago badaude Bartzelonan eta komentu bat sortzeko gogoia dugu. Batez ere, elkarren artean lagundu eta gure botak konpartitzeko. Monjeek badute monastegi bat Toulousen. Monje izan nahi duenak hara joan eta ikasketak egin beste lanik ez du. Guk ere aukera hori eman nahi diegu moja budista izan nahi dutenei. ■



Tolosa Bit

Informatika Zerbitzuak

Ordenagailuak eta konponketak
Enpresa eta partikularrentzako
Mantenimenduak

Oria kalea, 14-behea - TOLOSA - Tel.: 943 676 156 - Faxa: 943 016 857
tolosabit@facilnet.net - www.tolosabit.es

ARALAR KIROLAK

Laskorain, 7 • TOLOSA
Tel.: 943 654 916





galtzaundi
e u s k a r a t a l d e a



Helduentzako bakarrizketa

methodology

Igor de Quadra

Irailak 12, Kultur Errota ANOETA
22:00etan udaletxeko pleno a



Ipuin kontalaria

Lur Korta

Irailak 18
ADUNA
17:00etan kultur aretoan

LARRAUL
18:00etan kultur etxean

Irailak 25
URKIZU
17:30etan apaiz etxean

Irailak 29
ALDABA
18:00etan apaiz etxean

EUSKALGINTZA >>> 81 ENTITATEK DUTE BAI EUSKARARI ZIURTAGIRIA TOLOSALDEAN

Tolosaldean bai euskarari

Bai Euskarari Ziurtagiria gero eta zabalduago dago Tolosaldean. Kontseilua eta Galtzaundi Euskara Taldearen elkarlanari esker, urtez urte, ziurtagiria eskuratu duten entitateak ugaritzen joan dira. Aurten Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkarteak 81 ziurtagiri banatu ditu Tolosaldean.

Erredakzioa

Tolosaldeko saltoki enpresa eta bes-telako entitateek euren lan jarduna euskaraz egiteko konpromisoa adierazi dute beste behin. Aurten, 81 entitate izan dira Bai Euskarari Ziurtagiria berri dutenak.

Alor ezberdinetan lan egiten duten entitateek eskuratu dute ziurtagiria. Gehienak komertzio-aren eta ostalaritzaren alorrean mugitzen dira. Hala ere, eskualdean gero eta enpresa gehiago dira ziurtagiriaren eranskailua dutenak edo eta hau lortzeko konpromisoa hartu dutenak.



Bai Euskarari ziurtagiriaren banaketa ekitaldi bateko irudia.

Bai Euskarari Ziurtagiriak hiru urrats eskaintzen ditu, euskararen erabilerari dago-kionez. Tolosaldeko 81 entitate-tatik 33k "bidean" mailan daude, 37k, "zerbitzua euskaraz" ziurtagiria dute eta gai-nontzeko 10ak dira "zerbitzua

eta lana euskaraz" azken urra-tsean daudenak.

Ziurtagiriaren zabalkundeak goranzko joera izan du orain arte. Hemendik aurrera ere hala izango dela pentsa dai-teke, saltoki eta enpresa as-kok hartu baitute euskara-

ren erabileran urratsak ema-teko konpromisoa. Euskal Herri mailan, 1.516 entitate ari dira ziurtagiriarekin la-nean. Ziurtagiriaren Elkar-teak, 2012rako beste 1.500 ziurtagiri berri lortzea au-reikusten du. ■

Kilometroak

2008 ITUTA

Urriaren 5ean izan partaide!

Egin kilometroak gurekin!

eraikitzen
KMK-08 Irura

PRIMERAN PASA PASATU GABE

Irurako Ikastola

Izen/Abizenak _____

Telefonoa _____

Posta elektronikoa _____

Nongoa zara _____

Lan arloa Edozein Irurako ikastola
 Txosnak San Miguel plaza, 5 20271 Irura
 Zirkuitoa Informazio hau bideratzeko aukerak:
 Trafikoa - Txartela eskura entregatu ikastolan.
 Garbitasuna - Alboko koadroan eskatzen den informazioa emanaz
 Segurtasuna bidali e-maila ondorengo helbidera: kmk.gizabaliabide-
 Muntaia ak@ikastola.net
 - Telefono hauetara deituz: 636 724 827 (11:00-14:00)
676 448 066 (18:00-21:00)



LEIRE USANDIZAGA - LIZARRIBAR ZAPATA DENDA

“Ziurtagiria dugunetik lehen erdaraz egiten genuena euskaraz egitera ohitu gara”

Zer dela eta eskuratu zenuten Bai Euskarari Ziurtagiria?

Duela lau urte eskuratu genuen. Iruditzen zitzaigun euskara bulatzeko zerbait gehiago egin behar genuela. Galtzaunditik ziurtagiria aurkeztu eta zer konpromiso bete behar genituen azaltzera etorri zirenean, animatu egin ginen.

Ze konpromiso hartu behar izan zenituzten?

Saltokian genituen informazio kartelak, prezioak... euskaraz jartzea. Horrela berdin telefonoko erantzungailuarekin eta noski, guk geuk ere zerbitzua euskaraz eskaintzea. Hori izan da gutxi gorabehera.

Ziurtagiria daukazuenetik hona aldaketarik nabaritu al duzue?

Aldaketa gure artean nabaritu dugu. Dendan lanean aritzen garen guztiak euskaldunak gara, baina ohiturak bulztatuta edo, askok erdarara jotzeko joera izaten dugu. Ziurtagiria dugunetik ordea, lehen

erdaraz egiten genuena euskaraz egitera ohitu gara. Gure funtzionamendurako balio duten zenbait gauza, zapata kaxak izendatzea esaterako, euskaraz egiten dugu. Ziurtagiriak bulztada hori eman digu. Bezeroen artean ordea ez dut us-te eragin handirik duenik. Tolosan denda gehienetan egiten da euskaraz.

Orduan, ze balio du zuretzat Bai Euskarari Ziurtagiriak?

Niretzat balio sinbolikoa du. Euskaldunak gara eta euskaraz egiten duula adierazteko da.

Nola animatuko zenituzke gairontzeko saltoki eta enpresak ziurtagiria eskuratu dezaten?

Ba esango nuke denek zertxobait egingo bagenu euskara gertuago egongo litzatekeela normalizazioa lortzeko helburutik. Bai Euskarari Ziurtagiria ateratzea ez da lana. Gainera gogoia dagoenean dena erraza da egiten da.



JOKIN ARROSPIDE - MAHALA BASERRIKO PRODUKTUAK

“Euskararen aldeko urrats garrantzitsua iruditzen zaigu ziurtagiria zabaltzea”

Noiz eskuratu zenuten Bi Euskarari Ziurtagiria?

Zehatz mehatz ez dut gogoratzen zenbat urte diren. Baina ziurtagiria banatzen hasi zirenetik daukagu. Negozioarekin hasi eta gutxira eskuratu genuen ziurtagiria.

Zerk bulztatu zintuzten ziurtagiria lortzera?

Iruditzen zitzaigun, euskararen aldeko urrats inportantea zela ziurtagiria zabaltzen joatea. Gehien bat horrek bulztatu gintuen.

Ziurtagiria eskuratzeko aldaketa handiak egin behar izan al zenituzten zuen negozioan?

Ez. Ziurtagiria lortzeko eskatzen ziren baldintzak lehendik ere betetzen genituen. Gu euskaldunak gara eta euskararekiko konpromisoa gure izaeraren parte izan da beti. Mahalak gainera bertako produktuak saltzen ditu, lurra ematen diz-

kigunak. Horregatik lotura sendo bat sentitzen dugu lurraldetasunarekin eta honenbestez baita hizkuntzarekin ere.

Ze balio du zuretzat Bai Euskarari Ziurtagiriak?

Guk ziurtagiria sentimenduengatik egin nuen eta ez negozioren etekinengatik. Eraikusten du euskararen alde lan egiteko antolakuntza sendo bat dagoela, eta honen normalizazioa lantzen ari gara. Balio hori du nire ustez.

Ziurtagiria oraindik ez duenari zer esango zenioke hau eskuratu dezan?

Esango nioke ez dela batere zaila ziurtagiri hau lortzea. Eta aldi berean, euskara gehiago erabili dadin lagungarri gertatzen dela. Esfortzu txiki hori egin beharko genuke denok, euskara gurea baita eta guk defendatzen ez badugu inork ez du lan hori gure ordeztu egingo.

KEY-LAN
SARRAILGINTZA

Nafarroa etorbidea, 13-behea
20400 Tolosa
Mobila: 670 417 922
Tel./Faxa: 943 650 313

Beatriz
Dekorazioa
Donostia - Tolosa

Donostia	Donostia	Tolosa
San Martin, 16	Garibai, 8	Rondilla, 11
943 425 886	943 420 259	943 670 615
943 420 187	943 430 947	943 671 149

- Gortinak
- Edredoi nordikoak
- Mantak
(bat erosita beste bat opari)
- Ohazalak
- Alfonbrak etab.

Arteka
ESKULANAK

Nafarroa etorbidea, 10
TOLOSA
Tel.: 943 655 577

ALEGIA >>> TXINTXARRISFERA BLOG KOMUNITATEA ETA TXINTXARRIMEDIA SARE SOZIALAK OSATZEN DUTE ALEGIA

Txintxarrisfera, alegiarren herri birt

Gauza ugari topa daitezke interneteko itsasoan. Hala ere, sarea bota eta ez da erraza izaten kontu lokalak harrapatzea: bata hemendik, bestea handik, hura urrunago,... Alegiarekin loturiko gaiak biltzen dituen itsasontzia sortu dute zenbait herritarrek: Txintxarrisfera.

Amaia Goikoetxea

Sarearen handitasunean Alegiak egin du bere tokia. Herritarren ekimenari esker, edozeinek edonon egonda ere txintxarrien herria ezagutu dezake. Horretarako nahikoa da ordenagailua eskura izan eta <http://txintxarrisfera.wikispaces.com> helbidera sartzea.

Txarli Gesteirak eta Iñigo Balerdik abiatu zuten Txintxarrisfera: "Haurrekin parkera joatean elkartzen ginen eta hor hasi ginen blogen inguruan-eta hizketan" diote. Txarli diseinuaren eta argazkiaren munduak erakartzen du eta Iñigo, berriz, informatikaria da. Bi arlo horiek uztartuta atera zen alegiarren blogsfera. Baina ez hori bakarrik; eurak sortu zuten zerbait izan bada ere, beste hainbat blogarik osatzen dituzte Txintxarrisferako edukiak: "elkarlana da" dio Txarlik.

Txintxarrisfera ataria egin aurretik, Alegiko eskolak bere bloga sortu zuen eta gero, bata bestearen atzetik etorri ziren beste blogak: Iñigo Balerdik bere bloga du, Tontokaletik, eta baita Txarlik ere, Balerditik, Badaio mundura!. Beste ba-

tzuk dira, Txintxarri abesbatzarena, Zazpi astoren gainean, Ugartetik, Musika legi,... eta horiek biltzen dituen ataria da Txintxarrisfera. "Bloga oso pertsonala da eta bakoitzak bertan idazten duena iritzi partikularra da. Alegiako berriak herritarren begietatik idazteko modua da" dio Iñigok "tresna globalak geureganatu, proiektio lokala eman eta gero berriro ere eremu globalera pasatzen ditugu zabalteko". Komunikatzeko modua ere bada bloga: "Alegitik kanpo bizi diren bi anai harremanetan daude euren blogaren bidez: bata Derryn dago eta Gasteizen bestea. Bi katu izeneko bloga dute".

Jakintza Ikastolakoak, IK-Teroak, hezkuntzako hainbat blog eta Larrabetzu eta

Eibarko komunitateak izan dituzte erreferente. "Larrabetzukoek, adibidez, ataria egin eta gero hortik abiatuta bakoitzak bere blogari ekin zion; guk aurkako bidea egin dugu" diote.

Blogarien artean egindako afari baten haritik sortu zen Txintxarrisfera. Azaroan izan zen hori eta hitzorduak oihartzuna izan zuen: Sustatu agerkarian azaldu zen. Horretaz gain, beste zenbait hedabideetan ere agertu da euren blogsferaren berri: "Horrek errekonozimendua eta aurrera mugitzeko gogoia ematen du" dio Iñigok.

Hedabideetako, ordea, ez da aurrera egiteko ilusio hori pizten duen bakarra. "Atariko sarreraren estadistikekin harrituta geratzen gara, eta sartzen dena ez da

beti Alegiko jendea izaten. Lehen beste neurgailu bat nuen eta Kaliforniatik astero norbait sartzen zela adierazten zidan" dio Txarlik. "Ni ere aurrekoan Bilbon izan nintzela-eta, hiriburuan Tontokalerik ez zela idatzi nuen eta ez zidan hemen inguruko batek erantzun, Bilboko bertako batek baizik" erantsi du Iñigok.

TXINTXARRISFERA: BLOGARIEN EKARPENEN EMAITZA

<http://txintxarrisfera.wikispaces.com> da Txintxarrisferaren helbidea. Atariaren lehen orrialdean Txintxarrisferako blogariak idatzitako azken berriak agertzen dira, banan-banan blog guztiak begiratu beharrik gabe.



ualala



Iñigo Balerdi eta Txarli Gesteira.

Wiki horretan auzolandegi digitalak sortu zituzten: bakoitzak bere ekarpena egiteko aukera izan dezan eta atalak elkarlanean egiteko. Alegia tagzarian geolokalizatzea izan da auzolanetako bat, google mapseko tresnak erabiliz eta argazkiekin Alegiako gunek zehaztuz. Bestetik, hiztegi bat ere sortu dute Alegiako hizkera jasoz, "Alegian erabiltzen ditugun hitzak ez galtzeko eta hurrengo belaunaldiak ere erabil ditzan". Alegiako historia ez ofiziala izeneko saila ere zabalik dago, herriaren ingurukoak gehitzen joateko. Horietaz aparte, txata eta foroa ere baditu Txintxarrisferak, gogoeta- eta eztabaida-guneei tartea eginez.

TXINTXARRIMEDIA, SARE SOZIALA

Alegiako argazkiak eta bideoak lekutzeko galdera bota zuen erabiltzaile batek eta hari horri tiraka sortu zen Txintxarrimedia sare soziala (<http://txintxarrisfera.ning.com>). "Hasieran blogariak zeuden soilik baina orain 34 lagun gaude, eta ea noraino heltzen garen", diote.

Partaideok bideoak, argazkiak eta iruzkinak gehi ditzakete. "Gaur egun web 2.0 da gure oinarria. Erabiltzaileak du indarra. Gu hacktibistak gara eta ekarpenak egiten ditugu: blogak, wikiak, youtube, flicker, eta bestelako edukiak erabiltzaileak eramanen ditu gora" dio Iñigok. Plataforma honen ingelesaz-

ko eta gaztelarazko bertsioa dago baina ez euskarazkorik eta hori ere euskaratzen ari dira: "Euskaratze prozesuan hasi ginenean %23ra iritsi ginen. ZirIKTerokoak (irakasle euskaldunen komunitatea) horren berri izan zutenean, euskaratuta zutena pasa eta %87ra iritsi ginen" azaldu du Txarlik. Blogekin ere antzera ibili dira, erreminta horiek normalean ingelesak izaten baitira.

Txintxarrisfera aurrera eramateko erabiltzen dituzten tresnataz ere aritu zaizkigu. "Estres teknologikoaz hitz egin izan dugu gure artean. Beharbada tresna asko dira erabiltzen ditugunak, eta agian maila teknologiko hori jeitsi eta sozializatu egin beharko genuke. Horretaz gain, zaintza teknologikoa ere egin behar dugu, munduan gertatzen denaren inguruan eguneratuta egonez teknologiari dagokionean" dio Iñigok.

Tresna horiek guztiak ezagutarazteko eta egiten dugunaren berri emateko saio presentzialak interesgarriak direla azaldu dute: "Tailerrak egin izan ditugu". Horretaz aparte Txintxarrisferan badute Nola demontre? izeneko atala erabiltzaileek euren buruhauste teknologiak plazaratzeko. Off-line ere biltzen dira blo-

gariak: "Orain ez ditugu afariak egiten, Blogs & Beers-ak egiten ditugu" dio Iñigok.

Emaitza positiboak izan dituzte hacktibistak sortzeko garaian eta horiek dira Txintxarrisferaren bidea egingo dutenak: "Ez dakigu honek nora eramango gaituen, hori erabiltzaileen esku dago. Proposatu izan dugu proiekturen bat edo beste, baina azkenean bidea erabiltzaileen arabera egiten da" dio Txarlik. Adibidez, jende helduarekin egindako elkarriketak eta irudi zaharrak uzartzen zituen Kontu Kontari proiektua edota Gaztetxearen gainean wikiliburu bat egitea, azken hau "fase pre-prototipoan" badago ere.

Ordu asko egiten dituzte ordenagailuaren aurrean Iñigok eta Txarlik, baina ilusioa dute eta hori da aurrera eramanez dituenak. "Egunen baten nazkatu eta uzten badugu ere, orain arte egindakoa hor geratuko da" dio Txarlik. Izan ere, argi dute hori dela txintxarriek sarean lekua izateko modua: "Alegiarrok ez badugu gurea internetera eramaten ez du inork egingo" erantsi du Iñigok. Hari horretatik jendeak sarean bere partzelatxoak egitera bultzatzen dute Txarlik eta Iñigok. ■

 **CDI**
Informatika
Osagaiak
Desarrolloak
Instalakuntzak
BUDARI KALEA 15-BEHEA TEL.: 943 650 199
TOLOSA (GIPUZKOA) FAXA: 943 653 916

COMERCIAL
IASASTU
XXI S.L.
INDUSTRIARAKO
HONIDURAK
Iparragirre auzoa, 1-behea
20400 Tolosa
Tel.: 943 673 726 • Faxa: 943 673 462

MATILAKO
Mertzeria eta
konponketak
Zumalakarregi etorbidea, 7
TOLOSA


Arostegieta kalea, 2 - Tolosa

TXIRRINDULARITZA >>> ESPAINIAKO ITZULIAREN DISEINATZAILEA DA ABRAHAM OLANO.

Abraham Olano, itzuli handi baten

2003an utzi zuen profesionalen tropela baina bizikleta inoiz ez du bazterrean utzi Abraham Olanok (1970, Anoeta). Egun, Tolosako Txirrindulari Teknikazio Zentruko arduradunetarikoa bat izateaz gain, txirrindularitza profesionalean jokatzeko diren hiru itzuli handietako baten antolakuntzan egiten du lan. Jokoan dagoen Espainiako Itzuliaren diseinatzailea da. Berak erabakitzen du tropela nondik nora ibiliko den. Galtzaundik lagun egokia topatu du itzuli handi hauen ezkutuko aldeaz egagutzeko.

Erredakzioa

Zenbat denbora daramazu Espainiako Itzuliko antolatzaile gisa lanean?

Nire ibilbide profesionala 2003an amaitu nuen baina oraindik ez dut txirrindularitza utzi. Gauregun ere txirrin-

dularitzak nire ofizioa izaten jarraitzen du. Hain zuzen ere bizikletatik jaitsi nintzenean hasi nintzen Espainiako Itzuliaren antolaketan. Pixkanaka sartu naiz. Hasi batean laguntzen egon nintzen eta duela hiru urtetik hona itzulia bera diseinatzen nabil Unipublic enpresak hala eskatuta.

Zein da zure zeregina?

Nire zeregina itzulia nondik nora ibiliko den, etapak nondik nora izango diren zehaztea da. Lan hau dirudiena baino zailagoa da: Ibilbideak egokiak ote diren begiratu behar duzu, errepidea egoera onean ote dagoen... Gauza asko izan behar dira kontutan. Etapak zehazteaz gain, ezer gertatuko balitz, istripuren bat edo azken orduko lanen bat, alternatibak pentsatuta eduki behar izaten ditugu. Espainiako Itzulia bezalako lasterketa bat prestatzeko denbora asko behar da. Pentsa, aurtengo edizioa hasterako datorren urteko itzulia prest genuen. Denboraldia amaitu eta berehala egiten dira hurrengo urteko itzulien aurkezpenak.

Ze irizpide hartu behar dira kontutan itzuli bat diseinatzeko?

Lehenengo irizpidea etapak nondik abiatuko diren eta non amaituko diren jakitea da. Hori jada ez da

lan makala. Kontutan hartu behar da zein herri egin duen eskaera etapa bertatik hasi edo bertan amaitzeko. Etapa batzuk eskatuta egoten dira, baina 21 etapa dira guztira, eta hor tartean geratzen diren zuloak bete egin behar izaten dira. Zuk mugitu behar duzu batera eta bestera ea herri horretan etaparen bat hastea nahi duten galdezka. Kontutan hartu beharreko beste irizpidea, garrantzitsua oso, denboraldia da. Espainiako itzulia denboraldiko azken itzuli handia da. Honen ostean mundialak jokatzeko dira eta hor amaitzen da dena. Txirrindulariak nekatuta egoten dira ordu-rako, beraz ezin duzu itzuli gogor bat egin. Baina noski, itzuli lasai bat ere ezin da jarri, ikuskizuna eskaini behar duzu batetik, eta bestetik, txirrindulariak ez dira Espainiako Itzulira etortzen, batez ere atzerritarrek, paseo bat emateko. Batzuk mundialerako prestaketa moduan hartzen dute itzulia. Oreka bat bilatu behar izaten dugu.

Oreka hori lortze zaila izango da...

Bai. Gainera oso zaila izaten da denak gustura uztea. Gure asmoa zera da: Giroa bezalako itzuli gogor bat ezin dugunez egin, ikuskizuna ziurtatzeko azkenera arte garaipenerako lehia irekita mantentzea. Hau da, itzulia diseinatu dugu azkenaldia arte faborito garbirik ez egoteko moduan eta emozioa behintzat mantendu dadin. Hori eskatzen dute komunikabideek.

Hala ere izango da etapa gogorrik? Zein azpimarratuko zenuke?

Etapak gogorrek badaude noski. Hala ere, neurria hartu behar zaio gogortasunari, baina bada ikusgarriak izango diren etapak. Mendiko etapa gogorretan

komunikabideek arreta guztia jartzen dute, eta horregatik "etapa erregina" deritzona benetan izango da ikusgarria: 13. etapa Anglirun amaituko da. Hau izango da zalantzarik gabe etaparik gogorra. Guztira sei mendiko etapa ditu aurtengo itzuliak, gogorrek eta ikusgarria gertatuko direnak. Baina honen ostean erlojupeko proba izango dute txirrindulariek. Eta hemen, erlojuaren kontra espezialista direnek mendian galdu duten denbora berreskuratzeko aukera izango dute. Horrela, ea emozioa amaiera-ra arte luzatzen den.

Txirrindulari izateari utzi zenion baina oraindik txirrindularitza lanean jarraitzen duzu: behin har hori sartuz gero ezin al da kendu?

Ba egia da, oso zaila dela. Ni bezala, Espainiako Itzuliaren antolakuntza lanetan txirrindulari izandako gehiago ere bada biltza. Nirekin ibiltzen da esaterako Unipublic-en Francisco Giner. Bera ere txirrindulari profesionala izan zen tarte batean eta baita hainbat taldeetako zuzendaria ere. Gero saiatzen gara txirrindulari izandako jende gaztea erakartzen, engantxatzen, etorkizunerako teknikari onak izan ditzagun. Bizikletaz gain, bestelako kirolak ere egiten ditut. Gustatzen zait kirola egitea. Ahal dudan guztietan ateratzen naiz kirol pixka bat egitera.

Aurten ez zara Titan Desert proban izan...

Urtero ezin da. Espainiako Itzulia antolatzeko lanetan denbora asko ematen dut etxetik kanpo. Hiru ume txiki ditut eta proba honetan parte hartzeak beste aste betez etxetik kanpo egotea suposatuko luke.



ezkutuko aldean

Errepidean eta erlojuaren aurka munduko txapelduna izan zara, Espainiako Itzulia bera irabazi zenuen, Giroko podiumean ikusi zintugun... Guztira 47 garaipen lortu zenituen. Hauek denak bizikletatik jaisten zaren une berean ahazten al ditu jendeak?

Ez dakit. Denetik dago. Garaipen hauek atzo lortu izan banitu bezala oroitzen ditut nik. Jende askok ezagutu ere ez nau egiten. Gazteen artean askok ez dute nire berri. Beste batzuk, nire adinekoak edo helduagoak direnak gertutik bizi izan zituzten tropelean egin nituen urte horiek. Haiek oraindik ere gerturatzen dira nigana eta garaipen haietaz hitz egiten didate. Baina jende gazteak ez.

Normala da ahaztea.

Txirrindulari asko kexatzen dira itzuli askotan etapa gogorregiak jartzen direla eta... Espektakulararen izenean txirrindulariak gehiegi zukutzen al dira?

Baietz esango nuke. Niri ere ez zait ondo iruditzen txirrindulariak horrelako sufrikarioetan jartzea. Gauza bat da ikuskizuna eskaini nahi izatea eta bestea txirrindulariak horrela zukutzea. Giroan horren zaleak dira. Etapa oso gogorak jartzen dituzte. Baina hor abantaila batekin jokatzeko dute: Denboraldiko lehen itzuli handia dela eta txirrindulariak ilusio handiarekin egoten direla, gogotsu. Hala ere proba baten

gogortasunari neurria hartu behar zaiola uste dut.

Doping-a hautsak harrotzen ari da. Tourrean gertatutakoa ikusi besterik ez da egin behar... Espainiako itzulian aparteko neurririk hartu al duzue?

Ez. UCI-k jarritako arauak bete ditugu. Erakunde honek exijitzen dituen kontrol guztiak ari gara egiten, baina horrik aurrera ezer berezirik ez.

Zeintzuk dira Espainiako itzulia irabazteko zure hautagaiak?

Ba urtero urtero aurrean ibiltzen den eta guretzat oso txirrindulari garrantzitsua den Carlos Sastre da faboritoetako bat. Honekin batera, Alberto

"Itzulia diseinatu dugu azkenalderra arte faborito garbirik ez egoteko moduan".

Contador ere irabazteko indarrarekin dago. Alejandro Valverde ere aurrean ikusten dut. Atzerritarren artean Evans azpimarratuko nuke. Euskaldunen blokea ere oso garrantzitsua da itzuli honentzat. Zubeldia panggal xamar ikusi genuen Tourrean ea hemen zer egiten duen. Baina Txurruka esaterako oso ondo dabil aurten. Txirrindulari onak ditugu eta zerbait egingo dute. ■

**ZIABOGA
OKERRAGO
HARTZERIK
EZ DAGO!!**

kiroljokoa

**utzi jarduna eta
erakutsi dakizuna**

TOLOSAKO KIROL APUSTU-ETXEA
Errementari,2
www.kiroljokoa.com

**Osteguna 11
arratsaldeko
7etan zabalduko
dugu !!**

Uztailaren 4tik uztailaren 18ra arteko h

Ekitaldiren baten berri eman nahi baduzu, deitu 943 655 004 telefonora edo idatzi e-posta bat: erredakzioa@galtzaundi.com helbidera

ERAKUSKETAK

ARANBURU JAUREGIA

»» Irailaren Gera arte: Begikoak, Iñaki Lina-zasororen argazki irekusketa.

»» Irailaren Gera arte: 55 urte argazkitan, Jose Mari Gorrotategiren argazki erakusketa.



GAU GIRO 08

TOLOSA

»» Irailak 5: Manent talde tolosarraren kontzertua Plaza Berrian gaueko 22:30etan.

IZASKUN AUZOKO JAI AK

»» Ostirala, Irailak 5

18:00 Txupinazioa + Txokolatada
19:00 Buruhandiak
20:00 Triki-poteoa
21:00 Danborrada afaria
23:00 Danborrada Bonberenea txarangak alaitua
00:00 Kontzertuak



»» Larunbata, Irailak 6

10:00 Haur-Jolasak+ ondoren Buruhandiak
12:00 Udaberri dantza taldea
13:00 Toka
14:00 Auzo Bazkaria
19:00 Sagardo dastaketa
20:00 Mulambo
21:00 Zahagi ardoa
23:00 Kontzertuak

»» Igandea, Irailak 7

09:30 Tolosako Udal Txistulari Bandarekin diana

ELDUINGO ANDRA MARI JAIOTZAREN JAI AK

»» OSTIRALA, irailaren 5a

17:00.- Suziriak jaiei hasiera emateko
Ondoren PUZGARRIAK eta TAILA-

RRAK herriko txikientzat

18:30.- Patinai erakustaldia herriko haurren eskutik

21:30.- Herri afaria URDELAR BILTOKIAN

00:00.- Kontzertuak:

• HESIAN

• JO TA HANKA

Autobusa zerbitzua egongo da:

23:30 (Tolosa-Elduain) ohiko tokietan (San Frantzisko eta Tolosa-Ibarrako sarreran.

00:00 (Leitza-Elduain) Gaztetxe aurrean

04:00 (Elduain-Leitza) Kontzeju aurrean

04:30 (Elduain-Tolosa) Kontzeju aurrean

»» LARUNBATA, irailaren 6a

17:00.- PAILAZOAK herriko plazan: GARI, MONTXO ETA JOXELON-TXO

Ondoren BURUHANDIAK

18:30.- PATATA TORTILLA dastaketa herriko plazan, sagardo eta ardoz lagundurik

Ondoren KALE – ANTZERKIA Trapu Zaharra taldearen eskutik

00:00.- ABIBA DISKOJAI

Autobusa zerbitzua egongo da:

23:30 (Tolosa-Elduain) ohiko tokietan (San Frantzisko eta Tolosa-Ibarrako sarreran.

04:30 (Elduain-Tolosa) Kontzeju aurrean

»» IGANDEA, irailaren 7a

10:30.- MEZA NAGUSIA, Santa Katalina elizan

Ondoren HAMAIKETAKOA, sardina, txakolina eta ardoa.

12:00.- I.LARGAZKILEHIAKETAREN sari banaketa.

Gaia: OPORRAK

12:30.- PILOTA PARTIDUAK:

• ALAIN Ugartemendia EÑAUT Olaza-

TINDATEGIA

Laskorain kalea • TOLOSA
Tel.: 943 652 618

kutxa

ITURRALDE
INDUSTRI-HORNIDURAK

Donostia etorbidea, 17 - Tolosa
Tel.: 943 655 865

aitzorduak

balen aurka

- ALAIN Barandarain AIMAR Barandarainen aurka
- XABIER Mariezkurrena eta JOSU Olazabal – IBON Karrera eta JOXE ANGEL Lazkanoren aurka
- 18:00.- TRIAL erakustaldia, herriko aparkalekuan
- 19:30.- TRIKIDANCE herriko plazan

»» ASTELEHENA, irailaren 8a

- 10:00.- MEZA NAGUSIA, Santa Katalina elizan
- Onoren AITA DONOSTIA abesbatza elizan bertan
- 12:00.- HAMAIKETAKOA Kontzeju Tabernan
- 18:00.- HAIKOLARIAK: Mugerza, Esnaola, Mujika eta Otaegi
- 19:00.- TRIKITIXA herriko plazan, Arkaitz eta Miriamen eskutik
- 19:30.- GORRITI eta bere animaliak herriko plazan trikitalariek alaiturik

AITZOL UDAL EUSKALTEGIA

Aitzol udal euskaltegiak HABEren 2. eta 3. mailako AZTERKETEN bigarren deialdia PRESTATZEKO IKASTAROA antolatatu ditu irail-urrirako, arratsaldez.

- 2. maila: 20 ordu
- 3. maila: 25 ordu

Izena emateko epea: irailaren 1etik 5era, goiz eta arratsalde.
Aitzol udal euskaltegia, Rondilla kalea, 34-3.a. Tlf. 943651006*

MOTZEAN

Laister galtzaundi.com berria martxan

Galtzaundi Euskara Taldea bere web orria berritzen ari da. Aste gutxiren buruan espero da www.galtzaundi.com berria martxan egotea. Atari honek aukera ezberdinak emango dizkio nabigatzaileari:

- Edizio jarraia: Aldizkaria hamabostean behin ateratzean, hainbat gai zaharkiturik geratzen dira. Edizio jarraiak eskualdean gertatzen denaren berri berehala ematea ahalbidetuko digu. Atal hau etengabe berritzen joango da albiste eta bestelakoekin.

- Hamabostekaria irakurtzeko aukera: Gure aldizkaria pdf formatuan eskegiko dugu eta zure ordenagailutik irakurri ahal izango duzu.

- Normalizazioa: Atal honetan euskaren normalizazioaren gainean ematen diren albisteak, sail honi dagokion agenda eta estekak izango dituzu.

- Kultura: Galtzaundiko kultura sailak eskualdean antolatutako ekimenen agenda eta bestelako albiste eta jakinarriak zintzilikatuko dira hemen.

- Agenda, estekak, bazkideen txokoa... eta bestelako ataletan sartzeko aukera egongo da.

Guardiako farmaziak

IRAILA

- Larunbata, 6**
Morant R. (Zabalarreta 1) Tolosa
- Igandea, 7**
Azpiroz L. (Amaroz, 9) Tolosa
- Astelehena, 8**
Iturrioz I. (Euskal Herria, 3) Ibarra
- Asteartea, 9**
Santamania I. (Nafarroa etorb.2) Tolosa
- Asteazkena, 10**
Tolosa, (Kale Nagusia, 7) Tolosa
- Osteguna, 11**
Ugarte, (Euskal Herria, 46) Ibarra
- Ostirala, 12**
Bronte C. (Korreo kalea 20) Tolosa
- Larunbata, 13**
Olarreaga J. (Korreo kalea, 2) Tolosa
- Igandea, 14**
Olarreaga M. (Martin J. Iraola 10) Tolosa
- Astelehena, 15**
Echeveste (Gernikako arbola, 3) Tolosa
- Asteartea, 16**
Iturrioz I. (Euskal Herria, 3) Ibarra
- Asteazkena, 17**
Azpiroz L. (Amaroz, 9) Tolosa
- Osteguna, 18**
Tolosa, (Kale Nagusia, 7) Tolosa
- Ostirala, 19**
Santamania I. (Nafarroa etorb.2) Tolosa

Telefono interesgarriak

Alegia-Amezketza-Abaltzisketa-Albiztur Osasun zentroa	943 653 212
Aitzo Medikua	943 654 737
Anoeta-Alkiza-Hernalde Medikua	943 652 339
Baliarrain Medikua	943 889 003 (asteazk.)
Berastegi-Elduain Medikua	943 683 361
Bidegoian Medikua	943 681 134
Ibarra-Belauntza-Berrobi-Gaztelu-Leaburu Osasun etxea	943 672 411
Ikaztegieta Medikua	943 653 329
Irura Osasun zentroa	943 690 720
Tolosa Ambulatorioa, larrialdiak	943 650 931
San Esteban, hitzordua	943 006 800
Gernikako Arbola, hitzordua	943 006 900
Amarozko dispensarioa	943 672 637
Asunzion klinika	943 675 799
(Iarnaldiak)	943 675 390
San Kosme San Damian geriatzkoa	943 672 932
Udalzaingoa	943 675 858
Ur eta Argia (Tolargi)	943 650 016
Ur zerbitzuak (taberiak)	639 352 156
Iurreamendi egoitza	943 670 325
Larrialdiak, Suhiltzaileak	112
DYA	943 672 536
Gurutze Gorria	943 674 888
	943 651 425
Ertzantza	943 673 022
Tolosa Gasas	943 675 320
Lizartza Medikua	943 682 077
Orendain Medikua	943 655 595
Orexa Medikua	943 682 228

ARTESANIA
**ZUEN
TZART**
eskuz esku
arrunta berezi bihurtu!

GERNIKA, 4 TOLOSA
ARTESANIAZUENTZART@EUSKALNET.NET
TEL. 943 650 359

**JARRI ZURE
PUBLIZITATEA**

943 655 004

URDAIKARIAK
Altuna
HARAKINAK

Korreo, 39
Tel.: 943 671 414

20400 TOLOSA
Gipuzkoa

Muxu- -truk

Zure iragarkia muxu-truk atalean doanik jartzeko aukera duzu. Deitu 943 655 004 telefonora

LANA

- Adineko pertsonak edo gaixoak zainduko nituzke. Esperientziaduna eta profesionaltasuna. Karlos, **680 983 527**

ETXEBIZITZA

- Etxebizitza salgai Alegian. 65 m². 168.000 euro. **629 52 51 50**.
- Neska batek, estudio bat edo pisu konpartituan **gela bat alokatu nahi du**. 948468327.
- Etxebizitza salgai Izaskun auzoan. 60 m². 2 logela, sala, sukaldea eta komunarekin. **645 718 536**
- Ikasle bat, **pisu bat konpartitzeko** beste ikasleen bila dabil. 627834993.
- Garaje bat alokatzen da Anoetako San Juan kalean. 653 703 391

SALGAI

- Setter Ingles arrazako **txakur kumeak salgai** Abaltzisketan. **697.92.99.99**
- Kotxe bat salgai** BMW 330 D full equipa 18.000 euro. **629 52 51 50**.

IKASKETAK

- Ingelesko klaseak ematen dira taldeka edo bakarka. Maila ezberdinak, irakasle tituloduna. **664 160 268**.

HOROSKOPOA

IRAILAREN 5ETIK 19RA ARTEKO AURREIKUSPENEA



ARIES

Martxoak 21 – Apirilak 21

Oporren ostean indarberrituta aurkituko zara. Kurtso berri hau soseguz hartzen saiatu beharko zenuke. Lanaren zama hobe eramaten badakizuzu.



TAURUS

Apirilak 22 – Maiatzak 21

Patrika bete zulo duzula iristen da iraila. Oporretan bapo ibiltzearen ordaina izaten da hori. Baina ez zaitetz larritu. Hilabete honetan pasta eta arroza janez gero altxako duzu burua.



GEMINI

Maiatzak 22 – Ekainak 21

Eskerrak udako jaiak amaitzen ari diren. Zure gorputzak ezin du gehiago! Hilabete honetan garbi jan beharko zenuke. Barrenak garbitzeko beharrea zaude!



CANCER

Ekainak 22 – Uztailak 22

Oraindik ere udarako gau zoro horiek burutik kendu ezinik zabilta. Ilargian zaudela dirudi! Mugitu eta hasi lanean, bestela zezenak harrapatuko zaitu!



LEO

Uztailak 23 – Abuztuak 22

Opor egun ederrak igaro dituzu berritan, baina zu ez zara oporretan egon den bakarra. Jendea nazkatuta dauka zure bidaieko argazki eta istorioekin!



VIRGO

Abuztuak 23 – Irailak 22

Triste antzean zaude: uda igaro da eta ez duzu batere ligatu. Lasai, maitasunaren izarra udazkenean egiten du argia zure zeinuan. Gora bihotza!



LIBRA

Irailak 23 – Urriak 22

Kurtso hasira une egokia izaten da iazko kurtsoaren balorazioa egin eta ikasurte berriko aurreikuspenak egiteko. Garaiz zaude oraindik. Lasaiago ibili nahi baduzu ezingo dituzu buruan dituzun ardura guzti horiek hartu.



SCORPIUS

Urriak 23 – Azaroak 22

Gezurretan ibiltzen dena goiz edo berandu agerian geratzen da. Ez zara umea gezurra esaten ibiltzeko. Azkenean harrapatu egingo zaituzte, eta orduan zer?



SAGITTARIUS

Azaroak 23 – Abenduak 21

Zorteko zaude. 08-09 kurtso hau bereziki ona izango da zuretzat. Lan arloan zure asmo guztiak gauzatuko dira eta bizitza pertsonaleko hainbat arazo konponbidean jarriko dira.



CAPRICORNUS

Abenduak 21 – Urtarrilak 20

Denbora gutxi izaten duzue elkarrekin egoteko. Eguna hobe antolatu beharko zenuke, elkarrekin egoteko beharra baituzue. Bestela zuen erlazioa higitzen joango da. Zaindu ondo aginak.



AQUARIUS

Urtarrilak 21 – Otsailak 20

Ez da une egokia buruan duzun inbertsio hori egiteko. Zure oinarri ekonomikoa gehiago sendotu beharko zenuke baldin eta estu-estuan ibili nahi ez baduzu.



PISCIS

Otsailak 21 – martxoak 20

Atsedean hartu beharrea, uda hasieran baino nekatuago zaude. Orain, lanak ordea ez dizu atsedetik hartzen utziko. Bainuetxe batean asteburu bat hartu beharko zenuke.



AUKERA EDERRAK Km. 0-KO AUTOETAN

“Gure flota berritzen dugu”

YARIS



AURIS



COROLLA VERSO



AVENSIS

(Km 0-ko auto berriak ditugu, erdi-berriak, direkziozkoak,
adeitasunezkoak, barne erabilpen berriarekin)

EuskoAuto

PASAIA • ELGOIBAR • BERGARA • OLABERRIA

Telf.: 902 345 245



TODAY TOMORROW **TOYOTA**

AITZOL



08-09 Matrikula zabalik

- EUSKALDUNTZEKO eta ALFABETATZEKO maila guztiak.
 - AURREZ AURREKO TALDEAK: astean 8 ordu + tutoretza.
 - AUTOIKASKUNTZA
 - Boga + gure materiala
 - Tutoretzak, bakarka, hamabostean behin
 - Mintzasaioak, talde txikian, astean behin
 - Mediateka, material mailegua: liburuak, prentsa, aldizkariak, DVDak...
 - AZTERKETAK PRESTATZEKO AUKERA
 - 1. maila, 2. maila, 3. maila, EGA
 - Hizkuntza eskakizunak: IVAP – IRALE – OSAKIDETZA
 - TITULU HOMOLOGATUAK maila guztietan.
 - AZTERKETAK EUSKALTEGIAN BERTAN.
 - IKASTARO BEREZIAK, eskaerari egokituta: enpresetan, herrietan, eskoletan...
- MATRIKULA EGITEKO EPEA: irailaren 1etik 19ra
- BULEGO ORDUTEGIA Goizez: 10:00 - 13:00 Arratsaldez: 17:00 - 20:00
Ostiraletan: 09:30 – 14:00

Helbidea: Rondilla 34-B 3.a
Tel. 943 651 006 – 943 652 343 • Faxa: 943 651 244
e-maila: aitzolue@tolosakoudala.net